



ARGIA

Nekazari txikiak SOS baina gogotsu eta tinko



#2.637 | 2019 / 03 / 24 | 3,90 €



**"Normala da gure
kultura babesteko
borrokatu beharra?"**

12 | PAXKAL INDO



**"Bizkaiko egoitzetako
greba borroka
feminista izan zen"**

30 | ONINTZA IRURETA



**Bilbo Hiria irratia
lizentziarik gabe**

34 | HEDABIDEAK

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN # 240
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



GLADYS DEL ESTAL

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | GAIZKI ERRANKA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU
- 08 | EKONOMIAREN TALAIA

AZALEKO ARGAZKIA:
DANI BLANCO

Iritziak

- 17 | KARMELO LANDA
- 18 | KARLOS GORRINDO ETXEANDIA
- 18 | ITZIAR BARDAJI GOIKOETXEA
- 19 | KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
- 20 | ENDIKA ALABORT AMUNDARAIN

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 39 | DENBORAREN MAKINA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 42 | ARGIA KOMUNITATEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 50 | ZUZENETAKO EMANALDIA
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA: BETONA COMÍN
- 54 | BERANDUEGI



DANI BLANCO

34 | DEBAKO ARTE ESKOLA

Arte Eskola Bizirik plataformak jardunaldiak antolatu ditu martxoaren 23an, itxiera salatzen eta aurrerantzean Arte Eskolak hartu behar lukeen norabidea birpentsatzeko. Kepa Matxainen erreportajea.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL
Turismoa, milioika mundutar aberatsen luxu masifikatu baina lurrak jasan ezin hori
Pello Zubiria Kamino

12 | PAXKAL INDO, SEASKAKO LEHENDAKARIA
"Hautetsi guztiek babesten dute Seaska, borroka hori irabazia dugu"
Danele Sarriugarte Mochales

22 | NEKAZARITZA
Larre motzean zaildutako laborari tematiak
Garazi Zabaleta

27 | ITZIAR PORTABALES, LOGOPEDA ETA IRAKASLEA
"Aurrez aurre hitz egiteko neurria eta ohitura galtzen ari gara"
Igone Mariezkurrena

30 | BIZKAIKO EGOITZETAKO GREBA
"Zortzi emakume puska hauen kontakizunak indartsuak dira"
Amaia Lekunberri Ansola

34 | EUSKARAZKO HEDABIDEAK
Bilbo Hiria irratiak lizentziarik gabe segituko du
Gorka Peñagarikano

36 | NAZIOARTEA
Brasil: Ura eskubide izateko borrokan
Esti Redondo

Jabetza
Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Fernández, Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitu Eizaguirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona
Diseinua
Maitane Gartzandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde
Salmenta
Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Sorraluze, Bego Zuza

Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametzta interaktiboa, S.L.
Lege gordailua
SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdia, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruñia
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefona
943371545

Ametzagaiña taldeko kidea da Argia honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software productions

Doan eta libre

Argiako edukiak kopiatu, moldatu, zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuk lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNDUA)

Bonben bidezko lehen "laguntza humanitarioa"

ARGAZKIA | JAIR CABRERA
TESTUA | AXIER LOPEZ

Aste honetan 20 urte erortzen hasi ziren lehen lehergailuak orduko Jugoslaviako herritarren gainean. 2.300 misil, 14.000 bonba inguru, tartean uranio ez aberastua zutenak erabili zituzten, egungo hainbat ikerketaren arabera 2.500 lagun hil eta 10.000 inguru zauritu zituzten. Gehienak zibilak. PSOEko Javier Solana NATOKo idazkari nagusiaren sinadura zuen erasoak, Nazio Batuen iritzia-
ren aurka. Baina agindu, beste batek agindu zuen. Hilketa masiboetan adituena: AEB, Bill Clinton demokrataren bitartez. "Esku-hartze humanitarioaren" izenean inbasio militar bat justifikatu zen lehen aldia da historia modernoan. Ondoren Libia eta Siriako sarraskiek segida eman diote. Irudian: AEBen interesen "proxya" izan zen UÇK talde armatuaren aldeko aldarria Kosovoko Obilic hirian.





ESHTE UCK I GJALLE





EZKER ABERTZALEAN, ARDURADUN BATZUEK GARBI ESATEN DUTE BEREIZI EGIN BEHAR DELA ZERK DUEN LEHENTASUNA, ETA SINDIKATUAK XERPA BATEN MODURA IKUSTEN DITUZTE. GU EZ GARA INOREN XERPA, GUK INTERES PROPIOAK DAUZKAGU

Adolfo Muñoz (ELA), Berrian



GAUR EGUN ORAINDIK, EMAKUME BAT HAURDUN GELDITU ETA KALERATZEN DUEN ENPRESARIK ERE BADA. ARRAZIOA, 'BERE HOBEBEHARREZ' EGITEN DUTELA IZAN OHI DA. KONTZILIAZIOAZ HITZ EGIN OHI DA, BARREGARRIA DA

Eztizen Agirresarobe (LAB), Goiberrin



GAZTETXEEN DEFENTSA EZ DA HAUEN BIZIRAUPEN FISIKORA MUGATZEN, EDO DESALOJOAK EKIDIN ETA HAUEI AURRE EGITERA. GAZTETXEEN BIZIRAUPEN ETA GARAPEN POLITIKOA BERMATZEA ERE DEFENTSA DA, GURE DESARTIKULAZIO POLITIKOA ZUZENKI KONFRONTATUZ

Iruñerriko Gaztetzak



HERIOTZA TABUA DA, EZKUTATU EGITEN DA ETA EZ DA HAREN INGURUAN HAUSNARTZEN. EZINBESTEKOA DA HORRI BURUZ HITZ EGITEA, NOIZBAIT DENOK HILKO GARELAKO

Concha Castells, Uriolan



LIZEOETAKO IKASLEAK BAIONAN, PASA DEN MARTXOAREN 15EKO PROTESTETAN.

@BIZIMUGI

Klima aldaketa geldiaraztea helburu

MIKEL ASURMENDI

Klimaren aldeko nazioarteko mobilizazioa izan zen martxoaren 15ean. *Ostirala geroaren alde* lelopean, ikastetxeetan greba egin eta kalera atera ziren ikasleak, agintariek gai honetan daramaten politika eskasa salatu eta neurriak eskatzeko. "Ez du balio ikasten jarraitzea etorkizunik ez bada, Gobernuak berak ez badu deus egiten klimaren egoera larria aldatzeko", adierazi dute lizeoetako ikasleek. "Sistema alda dezagun eta ez klima!" edota "Gizateriaren arukako krimena da" gisako oihuak entzun genituen manifestazioetan.

Klimaren Aldeko Greba honek planeta osoko eskoletan izan zuen oihartzuna. Martxoaren 15ean zentratu zituzten beren ahaleginak pasa den udazkenetik ostiralez ostiral ugarituz joan diren protestalariak, nagusiki 15-17 urteko gazteak, Greta Thunberg suediarra hartu dutenak erreferentzia nagusi. 2018ko abuztuaren 20an, ostiralez, orduan 15 urte zituen Greta Thunbergekin eskola utzi eta Stockholmgo parlamentuaren atarian eserialdia egin zuen. Hor abiatu zen mugimendua.

Martxoaren 15eko protestei segida eman zieten herritarrek hurrengo egunean, mobilizazio zabalekin. Klimaren gaiak zeru-sabaia jo duela kexu dira. Krisia gero eta larriagoa da, argi gorria gori-goria da. Bizi! mugimenduak "mendeko afera" gisa izendatua du aspaldi. ANV-COP21 mugimenduarekin batera. Frantziako Gobernuari adierazi diote enegarrenez politika aldatzeko. Macronen Gobernuak, ordea, behin baino gehiagotan berretsi du ez duela klimaren politika aldatuko.

Bizi!-ren hitzetan, muturreko egoerara iristen ari da planeta, neurri zorrotzak ezarri ezean, berotegi efektua gero eta zuzenagoa da gure bizitzan. Eguraldiaren aldaketa bat-batekoak bizi ditugu egunero. Planetaren geruzaren beroketa +1,5°C pean mantentzea gero eta zailagoa da. Bioaniztasuna ez da behar bezala babesten ari, eta espezieen desagertzea gero eta agerikoagoa da. ●

GAIZKI ERRANKA

Gutuna Olentzerori



SANTI LEONÉ

Aurten badakit zer eskatu Olentzerori, baina, martxoan egonda ere, uste dut berandu nabilela. Hauexek, nire eskaerak: aldekaren aldeko alderdien partetik, erabakiak hartzeko ausardia handiagoa eta paktatzeko milikeria gutiago. Bai, asmatu duzue, eskuin unionistari kopiatu dizkiodan gauzak dira. Hirugarren eskaera bat ere ebatsi diot: Olentzero maitea, gure aldeko think tank bat nahi nuke.

Nafarroan UPNk badu bat: Civismo. Joan den egunean, han-txe eman zuen mintzaldi bat Iñaki Iriarte UPNko parlamentari ohiak, "Navarra en libertad" (Nafarroa askea) zikloan. Gaia: Euskara eta elkarbizitza.

Diario de Navarra egin zion elkarriketan, Iriartek azaldu zuen ameskeria dela euskara bere eremu historikora berriz eraman nahi izatea, eta absurdoa, eremu historiko horretarik kanpora zabaltzea. Beraz, euskara nonbait irakaste-kotan, toki horretan noizbait mintzatua izan izana baldintza beharrezkoa da, baina inolaz ere ez nahikoa. Bertzela adierazita: euskararen inguruan ezin da proiekturik eraiki ez iraganari ez etorkizunari begira. Itsusia da aztertzea nola ailegatu garen hona; pentsatzea nora joan nahi dugun, desegokia.

Iriarteren diskurtsoak boladan dagoen jarrera liberalera garamatza ezinbertzean: ikasi nahi duenak ikas dezala, kitto. Baina hori gezurra da. Ni elebaker hazi nintzen, espainolez, eta 23 nituela hasi nintzen euskara ikasten nahi izan nuelako; gure semea elebaker hazi zen, eurskaraz, baina eskolan hasi bezain fite espainola ikasi behar izan zuen, halabeharrez. "Errealitate" deituta, desoreka hori sakralizatu eta betikotzen ahal dugu. Edo gobernu bat saiatzeko ahal da egoera hori -pixka bat bederen- orekatzen. Baldin eta erabaki ausartak hartzen baditu. Baldin eta alderdiek aliantzak egiten badakite. Eta think tank bat lagungarria izan liteke. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

ADUR

"ESPAINIAKO GOBERNU BATEK GIZARTEA BEROTU ZUELAKO HIL ZINTUZTEN, AITA"

AITZIBER BERRUETA, ANGEL BERRUETAREN ALABA

Angel Berrueta eta Kontxi Sanchiz oroitu dituzte Iruñean, haien heriotzaren 15. urteurrenean. Espainiako polizia batek eta bere semeak hil zuten Berrueta, martxoaren 11ko Madrilgo atentatuetatik bi egunera, gizonak bere okindegian ETaren aurkako kartel bat jarri nahi izan ez zuelako. "Hil zintuzten, Espainiako gobernu batek gizartea berotu zuelako martxoaren 11ko atentatuak ETak egin zituela esanez. Garrantzitsuagoa zen hori, atentatuan hildako pertsona guztiez arduratzea baino", adierazi du alabak. 2019/03/14



EKONOMIAREN TALAIAN

Pultsu soziala mantendu behar da



JUAN MARI ARREGI

Eragile sozialen eta langile mugimenduaren historia, hala nola herriena eta jendarte osoarena, eztaba daezina da, hemen eta mundu osoan: presioaren bidez soilik lortu dira eskubide sozial eta politikoak. Hau da, greba, elkarretaratze, manifestazio eta okupazioen bidez lortu dira, baita zenbaitetan borroka armatua tartean zela ere. Kasu horietan, pultsu politiko eta soziala mantendu da sistema kapitalista, patriarkal eta matxistaren aurrean. Honek etekinak baizik ez ditu nahi eta aldian aldiko gobernuak ditu lagun.

Orain mende bat, 65 urteko Langileen Derrigorrezko Erretreta lortu zen; geroago zortzi orduko laneguna eta amatasunagatiko baja; Bizkaiko Meatzaldean etxebizitza duinak eskuratu zituzten eta erosketak ugazabek ezarritako kantinetatik kanpo egin ahal izatea; emakumeek botoa emateko eskubidea irabazi zuten... Gaur, pentsiodunak borrokan ari dira 1.080 euroko gutxieneko pentsio duinaren alde eta automatikoki eguneratua izan dadin. Jubilatze urtea murriztu dadila ere eskatzen dute. Emakumeek, bestalde, berdintasunaren alde dihardute, soldata arrakalari kontra eginez. Helburu horiek lortzeko ez dago etengabeko mobilizazioa beste biderik, pultsu soziala mantentzea.

Testuinguru horretan, salagarria da gobernuen hipokresia, Urkullurenetik hasita. Martxoaren 8an Eusko Legebiltzarrean paratu ziren paparrean txapa moreak zituztela, baina beraiek izan ziren aurrekontuen negoziazioan pobrezia-mugaren azpitik dauden pentsioak osatzeari uko egin ziotenak. Salaketa hori zabal dezakegu euren esku erreforma sozialak egiteko erabakimena duten beste gobernu eta politikariengan. Ez dituzte egiten. Ondorioz, pultsu soziala mantentzeak beharrezkoa izaten jarraitzen du. ●

ANALISIA



Venezuela, eszenatoki berrien zain

TESTUA ETA ARGAZKIA | IBAI TREBIÑO

Maduro presidentearen gobernuak egindako akats estrategiko larriak onartuta ere, Mendebaldeko iruditeria kolektiboan bakarrik existitzen den fenomeno gisa ulertu behar da “Juan Guaidó fenomeno”. Fenomenoa baina, AEBen apustua. Hiru astez mobilizatu gabe izan ondoren, Guaidók ordezkatzeko duen oposizioa martxan jarri da berriz ere. Horretan mundu osoko komunikabideen rola nabarmendu behar da, biek –oposizioa eta komunikabideak– estrategia bateratua baitute: presidente konstituzionalari zilegitasuna kendu eta plaza batean bere burua hala izendatu zuen pertsona bat “presidente ahalguztiduntzat” aurkeztea mundu osoari. Surrealista dirudi, baina bereziki arduragabea da, jakinda botere politiko eta militarra chavisten esku dagoela. Jakin badakite gainera irtenbide politikoa ez dela helduko chavistak baztertuz.

Oposizioak indarra duela ezin da ukatu, baina Asanbladako presidentek historikoki oposizioak pairatu duen zatiketa irudikatzen du egun, bereziki interbentzio militarra eskatu duten momentutik. Horrek, jendartearen –opositoriek barne, noski– gaitzespena eragiten du, “Guaidó fenomeno” pixkanaka hustuz. Bestalde, Guaidóren oposizioak ezin izan du baliatu eta kudeatu “elektrizitatearen krisia” eta egunotan antolatutako mobilizazio txikiak dira horren erakusle.

Guaidóren mezuari erreparatzea interesgarria da. Venezuelako beste politikari guztiek ez bezala, bere diskurtsoak atzeritar batena dirudi, haren hitzek herrialdetik milaka kilometrora idatzitakoak dirudite.

Badirudi egoera aldatu daitekeela eta herrialdearen politika zerotik berrabiatzera doa. AEBek iragarritako “aukera guztiak mahai gainean daudela” tesiaren zirkulua ixtera doa, eszenatoki berriak ekarriz. Ziurrenik aukerarik bortitzenak, edo behintzat oraingo egoera baino bortitzagoak. Balizko eszenatoki horien artean, Kolonbiako mugako egoerak rolik inportanteena jokatu dezake. Azken asteetan, Kolonbiako bake prozesuaren ondorioz desmobilitatutako talde paramilitarrek arazo ugari eragin dute. Bestalde, Kolonbiako talde paramilitar aktiboen infiltrazio saiakerei so egin beharko zaie. Porrot egindako Kolonbiako bake prozesutik irten berri diren gerrilen jarrera –ELN edota FARC– erabakigarria izan daiteke, iraultza bolibartarrarentzat ezezik proiektu bolibartar kontinentalarentzat ere. ●



ELA

LEHEN ENPRESA HITZARMENA NAVARPLUMAN

NAFARROA. 41 egunez greban egon ondoren, %10etik goitiko soldata-igoerak, 24 orduko lanaldi-murrizketa eta lan-erreforma indargabetzea lortu dituzte Navarplumako langileek. Enpresa Aratzuri-Orkoiengo industrialde batean dago, plantillan 38 langile ditu eta lan-baldintza oso prekarioetan ari zirela salatu dute. Lehenengo aldiz, hitzarmena lortu dute.

TELEMARATOIA

146.410

EITBk aitortu du iktusaren kontrako telemaratoian jasotako 146.410 euro kanpaina pagatzeko gastatu zirela.

Maite Iturbek hori justifikatzeko adierazi duenez, EITB taldeko hedabideetan kanpainak izan dituen espazio publizitarioen balio ekonomikoa 700.000 eurotik gorakoa da eta EITBko langileek maratoiari eskainitako lan-orduen balioa berriz 18.000 eurotik gorakoa.



Jon Darponek dimisioa eman du

ARGIA

Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburu Jon Darponek dimisioa eman du, Osakidetza oposizioen iruzur kasuek bultzatuta.

IRUZURRA

Osakidetza iazko lan eskaintza publikoan iruzurra egon zela salatu zuten azterketetara aurkezturiko hautagai batzuek, eta ondorioz iruzurraren gaineko ikerketa abiatu zen. EAEko fiskal nagusi Carmen Adanek otsailan aurkeztutako txostenak adierazten zuenez, delitu zantzuak aurkitu ziren. Adanek hamaika espezialitate jarri zituen susmopean, eta Osakidetza zuzendaritzako hiru kargu begiz jo: Xabier Balerdi zuzendariordea, Juan Carlos Soto Giza Baliabideetako zuzendari ohia eta Andoni Arzelai Osasun Arretako zuzendaria.

AUZIBIDEA

Gasteizko bigarren instrukzio epaitegiak auzibidea ireki du kasuaren gainean, eta bi delituz mintzatu da: agi-rien zaintzan desleialtasuna egitea, eta sekretuak aurkitzea eta agertzea. Hiru mediku jarri ditu ikerketapean momentuz, baina Adanek begiz jotako Osakidetza arduradunen gainean ez du erabakirik hartu.

DIMISIOAK

Duela hilabete baino gutxiago kargua utziko ez zuela adierazi zuen Darponek. Jada hiru lagunek eman dute dimisioa.



TERRORISMO FAXISTA. Zeelanda Berriko bihurtzaileek arma automatikoekin egindako tiroketek 49 pertsona hil dituzte eta 40 inguru zauritu, astekari hau itxi dugun momentuan. "Hildakoak gure migratzaileen komunitateko kideak dira, Zeelanda Berri euren etxea da", adierazi du Gobernuak.



KATALUNIA. ANC Asanblea Nazional Katalanek antolatuta, manifestazioa egin dute martxoaren 16an Madril, Procésaren kontrako epaiketa salatzen. Euskal Herriak ere autobusak joan dira. Espainiako Estatu hiriburuan ere jende asko "demokraziaren alde" dagoela ikusarazi nahi izan dute.



ARTEAK IREKI. Martxoaren 23an herriz herriko mobilizazioak deitu ditu Artekak ireki plataformak. Jendaurreko ikusizunaren EAEko lehenengo araudia onartu zuen Eusko Jaurlaritzak otsailaren 5ean, eta kulturaren eta komertzio txikiaren kontrako erasotzat ulertuta sortu zuten Artekak ireki.

TURISMOA, MILIOIKA MUNDUTAR ABERATSEN LUXU MASIFIKATU BAINA LURRAK JASAN EZIN HORI

2018an mugaz gaineko 1.400 milioi bidaia zenbatu ziren munduan, duela 50 urte luxua zena zenbateraino demokratizatu den seinale. “Demokratizatu”, diozu? Lurra planetako hamabost biztanletatik batek bisita ditzake gainerako hamalauak, baina hauek ezingo dute joan bakar haren sorterrira... ez bederen opor usainean. Atsedenezko bidaiei koste-etekinen banaketak injustizia neurri bera dauka: turismoak jendeen arteko desberdintasunak handiagotzen ditu.

PELLO ZUBIRIA KAMINO

Etorkizun oparoa dauka nazioarteko turismoak”, “2018an turismoak markak hautsi ditu”, “Turismoa gehiago hazi da munduko ekonomiaren batez bestekoa baino”... Urtean behin ez baina bi edo hirutan hegazkina hartzera ohitu den herritarrari mezuok iristen zaizkio eten gabe, Turismoaren Munduko Erakundeak berak ere zabalduak. Dena doa primeran aisialdizko bidaiei alorrean, kenduta pittin bat kezkatzen gaituela klima aldaketan eduki dezakeen eraginak; baina milaka milioi lekualdatze horien lorratz ekologikoak eragindako kontzientziako karga arintzeko hasi dira aipatzen bidaia jasagarriak, turismo etikoa eta ixtorio.

Askoz balantze kritikoagoa egin dute *La domination touristique* (Turismoa menderatzaille) azterlan mardulean. Bernard Duterme koordinatuta, mundu osoko – Hegoalde txirokeak barne – ekonomialari, soziologo antropologo eta turismoan adituek osatu dute fenomeno masibo honen kartografia orokorra, zeinaren emaitza nagusia honetan laburbildu daitekeen: “Panazea dirudienak funtsean berdintasun eza handiagotzen du”.

Turismoaren hasiera XX. mendeko sozialdemokraziari dagokio, oinarrian baitauzka langileen borroken lorpenak, oporraldi ordaindua, hazkunde ekonomikoa, bizi mailaren hobetzea, asti librea, kontsumismo eta espektakuluaren gizartea. Baita ere teknologien garapena, komunikazioen azelerazioa eta lekuen arteko distantzien laburtzea.

Laster etorriko ziren aireko trafikoaren eta harreman ekonomikoen liberalizazioa. Eta langile jendearen aisialdia eta ahalduzkoa errazteko sorturiko *turismo soziala*, sarritan langileen sindikatu eta elkarte bidez sustatua, bilakatuko zen masibo eta *low cost*, jarduera komertzial sendo, konkurrentzia handiko eta txit erasokorra.

Aisialdiko beste hainbat bidaia, bisitaldi edo txangotatik bereizi eta nazioarteko turismoan zentratu dira *La domination touristique* ikerlanean. Ez dute, noski, turismoa berdin egiten turista denek, baina Duterme denak ikusten ditu eskema beraren partaide: “Turisten masifikazioari erantzuten zaio bidaiaitzeko moduak estratifikatuz: ustez *turista ona* denak nola edo hala ihes egin nahi dio *txarrari* (‘horiek artalde moduan dabilta’, ‘eguzkitan tripaz-gorrajarrira dauden horiek’...). Aberatsak ihesaldiak eta lasaitasuna maite ditu; aberats-nahiak, jendetzak eta ohiko oporraldiak. Hark garrantzia ematen die gizarte, paisaia edo hizkuntzazko aberastasunei; honek dibertitzeari, topikoei eta abantaileri”. Alegia, denok turismoa den fenomeno bera darabilgula, gure jokabideekin nork bere klase sozialaren ezaugarriak nabarmenduz.

Turismoaren hartzaile ere denek izan nahi dute, herri, eskualde edo nazio, jarduera ekonomikoa etekintsua delakoan. Baina nola erakutsi muturra merkatu lehiakor horretan, nola izan erakargarriago? Neurgailu estandarra Davoseko

Forum Ekonomikoak dauka ezarrita: Bidaia eta Turismorako Lehiakortasun Indizea (*Travel & Tourism Competitiveness Index*), zeinaren gomendioak jarraitzen baitituzte planetako agintari gehienek, hots, zein eskuragarri dauzkan leku bakoitzak aire garraioak, turismo azpiegiturak, nazioartetik bertaratzeko erraztasunak, informazio eta komunikazio teknologikoen maila, segurtasun eta osasun zerbitzuak, prezioen, enpresen eta eskulanaren lehiakortasuna... “Hitz batez: turismoaren merkatuak ere beharpenak sustatzen ditu herrialde guztietan arau sozial, fiskal eta ingurumenezkoetan”.

MUGETAKO TRAFIKO ASIMETRIKOAK

Mundu osoko leku oro ote da turismotarako aproposa? Bai eta ez. Bai, zeren eta planetako edozein zokok nahi du parte hartu denen esanetan pagotxa dakarren jarduera ekonomikoa horretan. Eta ez, zeren eta leku guztiek ez baitute erakartze ahalmen berdina turismoak irrikaz bilatzen dituen paisaia, ondare edo gizarte aberastasunei dagokienez. Adibide bat jartzeko, Guatemala den helmuga turistikoak urruneko bidaiariak erakartzen dituzten katalogoetatik kanpo geratzen omen dira herritar indigenek usadiozko janzki ikusgarririk beztitzen ez duten eskualdeak.

“Turismoak –idatzi du Sylvie Brunel geografo eta ekonomialariak– geuzurrezko autentikotasun bat sortzen du. Atzeritar arruntak nahiagoko du indi-



HAPPY TO WANDER

IKUSKIZUNA BALIN

LEKUKO DANTZARIAK MUNDU
OSOTIK HELDU TURISTEI
'SUAREN DANTZA' ANTZEZTEN.

genaren irudi idealizatua, *antzeztutako autentikotasuna*, bere irudimenean urrutikoaren irudia eraikitzeko prozesuaren emaitza dena –lekuan aurkituko duen indigenaren irudi sinplifikatu, makilatua eta folklorizatua– eta bestela ez dio arretarik jarriko”.

Baina, gainera, ingurumen aldetik oso balantze txarra eskaintzen du turismo uholdeak. Industriak nahi duen adina demokratizatuko balitz, Lurra planetaren jasateko ahalmena askogatik gaindituko luke.

Hasteko, gero eta leku aldatze gehiago hegazkinez egiten delako. Klimaren aldeko *greenwashing* operazioetan aipatzen ez duten arren, CO2 isurketen hamarrena edo gehiago hegazkinei dagokie. Baina beste atal askotan ere lorratz nabarmena uzten du turismoak: sekulako ur xahuketa eragiten du (golf zelaiak

eremu lehorretan, kainoi bidezko elur artifiziala eskiatzeko...), nekazaritzak behar dituen zelai eta soroetako lurzoru artifizializazioa, gune naturalen suntsitzea, itsas bazterren hondatzea, kudeatu ezinezko hondakin mendiak...

Eta guztia 500 milioi jende baino gutxiagoren urtean behin edo gehiagoko aisialdia asetzeko. Bestela esanda, hamabost mundutarretatik batek beste hamalauak gertutik ikusi ahal izan ditzan. Zeren eta alderantzizkorik ez da gertatuko. Txukun samar irabazten duen europar batek erraza dauka oina Txaden edo Nigerian jartzea, baina hemengo herritar txiro batek...

“Turismoaren korronteeak –dio Dutermeke– zehatz-mehatz islatzen dituzte munduaren antolaketa eta bere desberdintasunak: mugetan elkar gurutzatzen dute migrazio baimenduek eta debeka-

tuek, ateak zabalik batzuentzat, alantbrezko txarrantzak besteentzat. Giza eskubideen deklarazio unibertsalak jasotzen duen mugitzeko ahalmenak benetan La Fontaineren ipuin hura balekar bezala: ‘Segun eta boteretsua zaren ala errukarria, aduanek munduko herritar bilakatuko zaituzte edo etxean arrestaturik bizitzera kondenatuko’.

Dutermeri galdetu diote ea zerbait konponduko ote duten bidaiatzeko estilo berriek: *ekoturismoa*, *turismo solidarioa*, *alternatiboa*, *arduratsua* eta abar aipatzen baitira. “Turismo jasangarririk ezin da egon, baldin eta ez badira auzitan jartzen hartzaileei dakartzkien ondorioak: liberalizazioa, arau gabetzea, lekuak eta bizimoduak salgai bihurtzea, lekuko herritarren folklorizazioa, herrirentzako funtsezkoak diren espazioak eta baliabideak lapurtzea”. ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f v





HAUTETSI GUZTIEK BABESTEN DUTE SEASKA, BORROKA HORI IRABAZIA DUGU



Baigorri hartu gaitu Paxkal Indok, etxean, eta hitz egin dugu haren bizitzan garrantzia duten hainbat gairi buruz: musikaz, euskararen hainbat ertzez, Seaska ikastolez. Halako batean, argazkilaritza ere gustuko duela aipatu, eta gehitu du: “Gauza asko egin ditut, eta egingen oraindik”. Harentzat ez omen baitago ametsik, “ondoko egunetako proiektuak bakarrik”.

TESTUA | **DANELE SARRIUGARTE MOCHALES**
ARGAZKIAK | **DANI BLANCO**

Musikaria eta ikus-entzunezkoen teknikaria zara, baina etxean beste ofizio bat ikasi zenuen.

Formakuntzaz deus ez nuen ikasi, ezta musika ere, alegia, ez naiz izan eskolatua ez musikan ez edozein artean. Alta, nire ofizioa da. Begiratu nuen aitaren enpresa nola zen, inprenta bat baitzuen, eta besterik ez. Nik ikasi ditudan guztiak izan dira gauzak begiratzuz, eta orain, 50 urteak pasa ditudalarik, ohartzen naiz hola maite dudala ikastea.

Zer egiten zenuten inprentan?

Inprenta Donibane Lohizunen zegoen, beraz egin behar genituen turismo bulegoko eta hoteletako menuak eta dene-tarikoak, eta noizbehinka ere hasi ginen liburu batzuen egiten.

Hor izan da nire abertzaletasunaren lehen esperimentazio zaila. Batzuk

oroit gara Schengen-eko akordioa pasatu zela, eta mugak hautsi zituztela. Orduan Hegoaldeko inprentak etorri ziren hona haien zerbitzuak proposatzera, eta Iparraldeko inprenta guztiek porrot egin zuten. Gureak ere. Garaian, inprenta abertzale bakarretarik ginen, beraz guk ezin genuen deus erran, eta azken finean bazen poztekoa. Gainera, ni jadanik hasia nintzen musikan, eta nahi nuen musika egin...

Gazte hasi zinen musika-taldetan jotzen, ezta?

Bai, pentsa ezazu, 1988an, nik 20 urte nituen, justu Rock Radical Vasco deitzen den mugimendu hori sortzen ari zelarik. Hori entzuteko adinean ginen, eta bistan dena, horretan murgildu ginen osoki. Gure lehen taldea 86-87an izan zen.

Mugimendu horrekin batera sortu zenuten ZTK elkarte.

Bai, 88koa da hain justu. Harritzekoa bazen ere, Iparraldeko taldeek ez zuten lortzen Iparraldean jotzea, kasik errazagoa zen guretako Arrasateko gaztetxean jotzea hemengo elkarte batean baino. Elkartea egin genuen bi gauzagatik: promozioa denon artean egiteko eta materiala mutualizatzeko; elkarrekin erosi genituen soinua eta ekipoa. Gero aski fite etorri da aukera liburuak eta diskoak egiteko: behar batzuk baziren, eta erantzun genuen hola.

Liburu ilustratu asko argitaratu dituzue ZTKn. Bada arrazoi berezirik horretarako?

Pentsatzen dut gustuz, batetik, eta bigarrenik, ni euskalkien militantea bainaz. Ez zen liburu ilustraturik Iparral-

Paxkal Indo

1968, DONIBANE LOHIZUNE



Musikaria. Gaur egun, BBAX taldeko kidea da, eta besteak beste, ikusgarriak egiten ditu Amaia Hennebutterekin batera, Kiribil elkartearekin. 2008. urteaz geroztik, Seaskako lehendakaria da. ZTK (Iparraldeko musika eta kultura) elkarteaz arduratzen da, eta haurrentzako bi liburu argitaratu ditu bertan.

deko euskalkietan, edo gutxi, eta orduan saiatu gara hori egiten, sinpleki. Uste dut lortu behar dugula euskalki guztiak ahal bezainbat atxikitzea, niretako baitira euskararen aberastasuna. Ohartzen gara hizkuntza bat zein erraz eta zein fite ahultzen den eta zein fite galtzen duen bere mamia. Aski da begiratzea telebista frantsesean, badira halako emankizun txarrak, hor eramaten dituzte ez dakit zenbat gazte etxe batean, gerta zer gerta. Ez naiz sartuko gazte horiek ea zozoak diren, ni harritzen nauena da bizi direla 500 hitzekin, eta ez da zozokeria, ez zaie aukerarik eman hitz horiek baino gehiago ikasteko.

Ematen baldin bada hitz bakar bat gauza baten izendatzeko, zer pobrea den mundua, eta nik espero dut gauza bakoitzak behar izatea bederen lau, bost edo sei hitz, eta bakoitzak aukera dezala. Euskalkien indarra hori da. Bizkaian, Zuberoan, hemen Nafarroa Beherean, edo Tuteran espero dut lau hitz izanen direla gauza baten erraiteko, eta zer aberastasuna den hori.

Diskurtso batzuetan kontrajarritzat jo ohi dira euskalkiak eta euskara batua. Zuk zer uste duzu?

Ez dut uste arazorik denik horretan, euskara betidanik izan da plurala, betidanik izan da ezberdina eskualdeetan, eta ulertu nahi duenak ulertzen du. Eta batzuk ezingo dute elkar ulertu nahiz eta hizkuntza berdina hitz egin. Ni batuaren alde izan naiz beti, eta beharrik dugun. Idazteko bederen behar dugu, eta arauak behar dira, jakina, baina nire burua artistatzat dut eta uste dut arauen zangopilatzea, ostikatzea, pusatzea ere badela artiston rola. Azken finean, ez genuke araurik ezarri beharrik den-denek bide beretik segitzen baldin bagenu, baina orduan ez gara gehiago humanoak, ardiak gara. Uste dut nire rola dela batuaren kide izatea, baina ez baitezpada maitalea.

Itzul gaitezen ZTK elkartearen argitalpenetara. Editore lanari buruzko hitzaldi bat aditu nizun, eta ulertu nuenagatik, elkartearen helburua ez da dirua egitea.

Ez da arras hori. Gure egiazko helburua da proiektua bururaino eramatea, eta proiektua bururaino eramatea da dendaraino eramatea, gero dendan saltzen den edo ez, ez da gure historia. Saltzen baldin bada, ze ongi, ez da behin ere gertatu, baina salduko balitz... [barreak].

Ez zaudete dirua egitearen kontra, alegia.

Ez, kontra ez gara, baina ez da helburua. Bada, ere, euskararen militantziaren historia. Badugu hitz bitxi bat, deitzen dena normalizazioa: zer ote da normalizazioa? Normala ote da gure kulturaren babes-teko, aitzinatzeke eta beste, borrokatu beharra? Normala da gure kultura justifikatu beharra bi sos-iturri edo beste lortzeko? Ez. Normalizazioak badu bere gauza bitxia: nahi dugu normal izan, eta horrek zer erran nahi du? Bada guk ere ahal bezainbat liburu atera behar dugula urtean. Horren erakusle dugu Durango-ko Azoka. Zenbat gauza berri atera dira aurten? Pila bat, 400 edo. Eta nork daki zenbat gauza interesgarri baden hor? Kasik denak. Eta zeinek dute salduko? Bada, hamar batek. Azken finean, euskaraz ari gara normalizazioa lantzen, baina jadanik normalak gara, erran nahi baita, interes asko luketen obrak ez dira eza-gunak, eta interes arrunta duten obrak asko saltzen dira. Beraz, ZTKren helburua zer da; normalizazio horretan parte hartzea, erran nahi baita salduko ez diren liburu horiek ekoiztea.

Seaskako lehendakaria zara 2008az geroztik. Orain dela aste batzuk ospatu zenuten elkartearen 50. urteurrenaren festa. Zer moduz?

[Barreak]. Gaualdi perfektua zen niretzat, harreman zuzenak nituen hor jo zuten musikariekin, beraz bazen halako emozio bat. Eta beste emozio bat da nik 50 urte ditudala eta ni ere egon naizela Seaskako lehen ikasle horietarik, eta ikustea proiektu horrek oraino bizirik jarraitzen duela, bada emozio askorekin bizi dut, bistan dena. Anitz gara lanean aritu izan horretarako, eta lortzen ari gara.

Mende erdian egindako bideari begiratuta, zer-nolako balantzea egingo zenuke?

Ahal izan bagenu bide doblea egin, hobe, baina ezin zen egin, eta horrenbeste oztupo ezarri dituzte, harrigarria da lortu duguna lortzea. Pentsatzen dut zinez Hegoaldetik ezin dela ohartu zer maltzurkeriarekin aritzen den frantses gobernua eta frantses gobernuak, 50 urteren historian asko izan baitira. Ezker ala eskuin, denak dira frantses, jakobino, inperialista eta kolonialista. Gainera, bada gauza ikaragarria: Frantzia, oso erraz pentsatzen ahal da, frantses bezala, euskaldun batek duen kultura bigarren mailakoa dela. Madril-

darra izanda ere, pentsatzen ahal da bizkaitar baten edo katalan baten kultura kaka zaharra dela, baina kontua da Madrilen ez dela emana “*liberté, égalité, fraternité*” udaletxe guztietan eta Errepublikaren lema bezala. *Egalité* baldin bada lema, erran nahi du denak berdinak garela, eta nire kulturak balio duela zureak bezala, eta kito.

Gainera, pentsatzen baldin bada kulturek maila ezberdinak ukaten ahal dituztela, bada, orduan gizakiek ere ahal dute. Gure eguneroko borroka da erakustea nondik, nolaz, noiztik duen elebidun batek elebaker batek baino kultura gutxiago. Nolaz? Ezin da. Dakidalarik bi hizkuntzatan erran zer bait, nola izango naiz ni kultura gutxien duena bien artean? Harritzekoa iduri badu ere, aurren, frantses eskola publikoan, egin dute ariketa bat kolonialismoaren onesten. Horrek

erakusten du oraindik ere zer ideologia ari diren pasatzen eskoletan.

Ezkutuago dabilta?

Problema da ez direla hain frontalak, ez dira sartzen zuzenean, baina dena maltzurkeriaz ari dira egiten. Oso paternalistak dira, haien baitan duten halako segurtasun batekin egiten dute. Oso mingarria da. Badute zurekiko mespretxu aire bat. Harrigarria da nola lortzen ahal duten halako mespretxua erakustea beste norbaiti.

Azken urteotan protesta handiak bideratu dituzue.

Nik hamar urte pasatu ditut lehen-dakari, eta ez dut uste besteak baino gatazkatsuago izan direnik. Bi gauza: lehenik, etsaia hor dugu, badakigu non den, Parisen da, eta kito. Baina garaian ez zen Parisen bakarrik, garaian hemen

ere bazen, erran nahi baita, tokian ez genuen irabazia, eta gaur egun bai. Azken negoziaketan, Max Brisson eta Frédérique Espagnac izan dira Parisen borroka eraman dutenak, erran nahi baita, frantses eskuindar senataria eta sozialista senataria. Senatariek dute eraman gure borroka Parisen, beraz hori berrikuntza handia da. Eta ez gure alderdikoek, e! Erraten dut jendeak uste baitu Seaska dela mugimendu abertzale bat, eta ez da: Seaska, Iparraldean, mugimendu osoki apolitikoa da, gure estatutuetaan hala emana da. Gu euskararen alde ari gara, Iparraldea euskalduntzeko, kito. Beraz, edozein ikasle baditugu gaur egun, eta edozein babesle ere bai, hala nola senatariak eta diputatuak. Borroka hori irabazia dugu: tokiko hautetsi guztiek osoki babesten gaituzte.

Euskaldun ez izanda ere?

Euskaldun ez izanda ere. Sinpleki ulertu baitute hemengoa dena euskalduna dela, eta euskara galtzen baldin badugu, euskalduna dena galduko dugula. Seaskak lortu badu hori ulertaraztea, jadanik asko da.

Beraz, ZTK elkartearen helburua da euskararen normalizazio horretan parte hartzea, erran nahi baita salduko ez diren liburu horiek ekoiztea



Etorkizunera begira, zein dira Seaskaren lehentasunak?

Behar dugu lege bat. Nola frantsesek ez baitute ulertzen nola bizi garen, lortu beharko dugu lege bat bederen gure minimoa babesteko. Eta lege bat beharko da ikastolentzat eta besteentzat, bost hizkuntza baikara murgiltze eremuan lan egiten ari elkarrekin: alsaziarra, bretoiera, katalana, okzitaniera eta euskara.

Nik esperantza handiarekin ikusten dut geroa. Lortu da odolustea gelditzea Iparraldean. Gaur egun, 2010ean edo 2005ean baino gazte gehiago ari dira euskalduntzen, beraz pozten ahal gara. Euskalkiez axolatzen baldin bagara, hor badugu negar egiteko.

Zergatik?

Han gainean, Urepelen, Bankan, Alduden, astero hiltzen da zahar bat euskarari buruzko sekulako jakitatea duena, eta bitartean, ikastolan sortzen diren haur elebidunek ez dute behin ere euskara zahar horren ezagutza ukanen. Orduan, negar egin behar den? Ez, uste dut gauzak begiratu behar direla nostalgia gabe, diren bezala, eta aitzina. Egia da euskararen kalitate bat berma-

tu behar dugula, baina bide berean ere, euskaldun kopuru minimo bat ere sortu behar dugu, eta ezingo dira denak kalitate handikoak izan. Ez dut erranen bata lantzen duzularik ez duzula bestea lantzen, baina usu hala da, beraz, hau da Seaskaren xedea: kalitatea bermatu, baina ahal bezainbat euskaldun sortu Iparraldean.

Hona bidean gentozela ikusi dugu Etxauzia jauregia. Orain hiru urte kanpaina bat abiatu zenuten, "Euskaldun bat, euro bat", eraikina berreskuratuko eta herritarrei zabaltzeko. Zertan da proiektua?

Segitzen dugu emaitzak-eta biltzen, eta beti amesten dugu Baigorri berreskuratuko duela gaztelu hau, eta nik, zenda-ko ez, ikusgarri eder bat egingen dudala hor, suziriekin...

Suziriak egiten dituzu?

Bai, duela hamabost bat urte hasi nintzen.

Nolatan?

Ikusgarri bat egin genuen Zuberoan, *Itaula*, eta ezagutza egin nuen Bordele inguruko suziritzaile batekin eta be-

rehala harrapatu ninduen. Suziri historiak badu dena enetzat: badu erritmoa, baditu koloreak, badu harrabotsa ikaragarria, nik maite dudana, eta badu gauza sinple bat: arriskua. Ez da arte erraza, hor izan behar duzu osoki, ehuneko ehun.

Nik zorte handia dut. Frantzia aritzen diren suziritzaile guzti-guztiek lan egiten dute txinatar materialarekin, baina, jende gutik badaki ere, Araban badago Pirotecnia Valecea deitzen den enpresa bat. Aitor eta Jose Valdecantos dira, hemengoak dira, Gasteizen bizi dira, bosgarren suziri egile belaunaldia, eta denetarik fabrikatzen dute. Ni orain hasia naiz haiekin lanean, eta Europa osoan nabil haien materiala saltzen. Euskal Herriko piroteknia bat ari gara muntatzen, hor ere ari naiz lantzen ene Euskal Herri osoko batasuna, nahi gabe: tutuak Herri nanitik datozela, beste guztia Arabatik... Behar nuen guztia atzeman dut suzirien langintzan. Badakit Seaska uztean hori izanen dela nire ofizioa.

Seaska utzikiko duzu?

Bai, ekainean. Hor baduzu primizia, nehork ez daki. ●

OHARRA



Zenbat gara?

ARGIAko zenbat kidek osatzen dugu proiektu hau eusten duen komunitatea? Badakigu zenbat helbidetara bidaltzen dugun, baina horien atzean zenbat garen ez. Kanpaina honekin hori argitu eta publiko egin nahi dugu, gardentasun osoz. Horretarako, baina, kopuru erreala jakin behar dugu.

Urte askoan, "helbide bat, harpidedun bat" gisa kontatu izan dugu gure komunitatea. Baina, hori ez da zuzena. Horrez gain, garaia aldatzen ari dira. Duela zenbait urtetatik ehunka lagun egiten dute proiektua sostengatzeko ekarpen ekonomikoa, aldizkaria etxean fisikoki ez jasotzea aukeratuz, Internet bidez jarraituz gure kazetaritza.

Horregatik, atrebentzia ez bada, jakin nahi dugu helbide bakoitzaren atzean zenbat lagun sentitzen diren ARGIAko kide. Zuen etxera/bulegora/tabernara/espexera/gaztetxera edo dena delakora etorrita, zenbat sentitzen zarete ARGIAko komunitateko kide aldizkariaren edo webgunearen atzean? Kontaketa egitera goaz: zenbatek nahi duzue kontatuak izan komunitate honetako kide gisa?

Erantzuteko hiru bide: Idatzi emaila zenbatgara@argia.eus helbidera, edo deitu 943371545 zenbakira astelehenetik ostiralera, 07:00etatik 15:00etara, edo gutunez bidali ARGIAra.

Milesker lagunok!



Iritziak

Zer aldatu da, zer alda daiteke?



KARMELO LANDA
HISTORIALARIA

Sendo itxura ematen duten egitura politikoak ere ez dira betiko izaten. Europar Batasuna kilin-kolon dabil. Espainiako Estatuak, berriz, zalantza-balantzan. Zer aldatu da, bada? Euskarriak.

Estatu espainiarrari begira, 78ko Erregimena deituak bi operazio nagusi burutu zituen finkatze-bidean. Bata, langile mugimendua integratzea abiatua, ezkerreko alderdiekin eta sindikatuekin itunak egin, haiek estatu zaharberriaren muga estuetara erakarriz. Bigarrena, aldiz, estatu barruko nazioak guztiz aintzat hartu gabe ere, autonomia anitzen sarean atxiki, beti ere zentruaren aginte nagusiaren mende.

Bi operazio horietarako, Estatuak ezinbesteko zituen euskarriak, bai langile-mugimendu barruan, baita nazioaspalditik zapaldu-ukatu-txikituetan ere; lehen kasuan, ezker espainiarra gogotsu egokitu zen, beren alderdi eta sindikatuarekin, Estatu-itun berrietara. Nazioen kasuan, aldiz, zertxobait konplikatuagoa gertatu zaio Estatuari. Galizatik hasita, han frankismoak sustrai sakonak utzi zituen gizartean, baita inolako disimulurik gabe erregimen zaharretik itxuraberri-tura agintean mantendu zen politikari ospedunik ere. Era gordin horretan neutralizatu dute Galiza gaur arte.

Katalunian eta Euskal Herrian ez zen antzekorik, eta bi hauetan oso konplikatuak zitzaion Erregimenari bere kabuz legitimazioa lortzea; izan ere, lehen aha-

Hori horrela dela ikusita, zer alda daiteke orduan?

Bada, 78ko Erregimen horrek bere euskarriak gal ditzakeela, bai Katalunian, bai Euskal Herrian. Lehen arrakala larria Katalunian agertu zaio

leginetan (Erreforma politikoa, Konstituzioa, NATO...) Estatuak kale egin zuen, hein handi batean. Zer egin orduan? Estatuaren kudeaketan inplikatu tokiko ordezkari moldakorrenak. Bigarren mailako egitura politiko autonomoak haien eskuetan jarri zituzten, estatu-egitura nagusiekiko fidelotasunaren truke. Horrek balio izan die azken hamarkada luzeetan, bai jeltzaleek baita pujolismoak eskema autonomiko hori probetxugarri kontsideratu izan duten bitartean.

Hori guztia aldatzen ari da, neurri handi batean Estatuaren amarrua nabarmendu delako balizko autonomiaren azpian: Estatuak ez ditu sekula naziotzat hartu ez Katalunia ez Euskal Herria; itunen arabera ahalmenak ere "orraztu"

, murriztu edo ukatu egin ditu lotsarik gabe; era horretan, agerian utzi du autonomia itun haietan klabea zen kontzeptu bat: "elebitasun" kontzeptuak, praktikan, Estatuaren botereek bi ele oso desberdin erabiltzen dituztela agertu du. Bata itxura ematekoa; bestea, aldiz, beren boterea benetan bermatzekoa. Ez dago aldebikotasunik inon, ele bakarrak agintzen du.

Hori horrela dela ikusita, zer alda daiteke orduan? Bada, 78ko Erregimen horrek bere euskarriak gal ditzakeela, bai Katalunian, bai Euskal Herrian. Lehen arrakala larria Katalunian agertu zaio. Eta hantxe gertatzen da une honetan sokatira: alde batek, Kataluniatik bertatik, Errepublika propioa lortzearen aldera tiraka. Besteak, Estatutik bertatik, zentrorantz tiraka.

Sokatira horrek merezi digu arreta orain. Ikusi, adibidez, Madriletik tiraka dabiltzanen jokabidea; ez dira joko garbiaren aldekoak, eta indarrak kataluniarren alde susmatzen badituzte, soka bera mozteko gauza ere badira. Edo jokaldia amaitu gabe utzi eta beraien mesedeko beste joko-eremua inposatu, Estatu mailako hauteskundeak kasu.

Baina zer esan Katalunian bertan, edo are Euskal Herrian, agertzen diren jarrera desberdinen aurrean? Hala-koetan komeni da argitzea norantz tiraka ari garen, zein den gure jokoa eta zein gure aldea. Sokatira horretan ez baitago bitartekorik. ●



KARLOS GORRINDO
ETXEANDIA
EUSKARA TEKNIKARIA

Idiozia

A tzerapen mental sakona adierazten du idioziak, gaixotasun mentala, alegia. Idiotak ez du gaitasun psikiko edo intelektualik. Gaiztoek badute, oster, gaitasun psikiko eta mentala. Eta espainiarrek ere bai, salbu eta monarkiaren buru den errege bobolioak. Zitalkeria pertsonen ezauzgarri intrintsekoa da eta Espainiako monarkiaren burua zitala eta idiota da, egindako baieztapenen arabera: “Ez da onargarria ustezko demokrazia bat aipatzea Zuzenbidearen gainetik. Izan ere, legeak errespetatu gabe ez dago bizikidetzarik; segurtasun falta eta bigabekeria baino ez dago, eta azken buruan, gizartearen printzipio moral eta zibikoak hausten ditu”.

Francok, hil-hurren zegoela, diktaduraren azken mimenkadak banatzen, erregimenaren eta sistemaren arauak, zuzenbidea eta legedia bete zituen: Txiki eta Otaegi erail zituen. Diktaduran ordenamendu juridikoa zegoen. Estatu batek sortu egiten du zuzenbide zehatz bat, erabilia izan dadin. Estatu orok dute ordenamendu juridikoa, araudi eta legedi bat. Pentsaezina litzateke zuzenbiderik gabeko estatu bat, ordenamendu juridikorik gabe, araudi eta legerik gabe. Espainiak, gaur egun, ordenamendu juridiko jakin bat du. Espainiarra, *of course!*

Espainiarrek legea bete dezaten eskatzen diete katalanei, euskaldunei, espainiar orori. Legearen inperioak bat eta bakar egiten gaituelako, antza.

Baina Urkullu jauna arranguraka dabil, amorratuta, bere onetik aterata. Espainiako Senatuan PP trogloditaren mintzaki-deetako batek eskatu diolako Espainiako Kongresuari ez dadila euskaldunei esku-menik oparitzen ibili, berrogei urtean esku aldatuta egon beharko liratekeen horiek hain zuzen ere, Espainiako ordenamendu juridikoak eta Konstituzioak esku aldatzeko agindua aspaldian emanagatik ere.

Idiozian, zitalkeria edota supremazismo arrazistan oinarrituta, eta monarkia buruak aldarrikatzen duen legeria hori bera. Argi dago haiek aldarrikatzen duten legea ez dutela beteko inoiz, interes nazionalista espainiar eta diktatorialak direla kausa.

Urkullu jaunak direnak eta ez direnak esango ditu, ezpain bazterrak adur dario-la jarri arte. Beste berrogei urte itxaroten egon beharko ote dugu euskaldunok, euskal herritarren legeak ez diren inorenak bete ditzaten eskatzen? Ala maiuskulaz idazten eta sentitzen diren demokraziaren baitatik sortutako araudi eta legedia egituratuko ote dugu gurean? Demokraziaren gainetik ez dago legerik ez inposaketarik, herriaren agindua baizik. ●

Kapitalismo morerik ez, eskerrik asko



ITZIAR BARDAJI
GOIKOETXEA
IRAKASLEA

I kusi dugu lehenago. Ekologismoa da adibide paradigmaticoa. Halaber, *pink washing*-a edo gayppitalismoa. Merkatuak gure borroak irentsi, digeritu eta gorotz moduan produktu kapitalista bat iraitzen digu, salmentarako prest, sistemari funtzionala egiten zaiona.


Hedabideek soldadari, goi-mailako enpresari eta politikariei, emakumezkoen futbol taldeei, zientzialari edota artista famatuei erreparatzen diete. Euskal Herrian greba feministaren antolakuntzan ibili direnek aldiz, migrazioa, arrazionalizazioa, presoak, neskameak, dibertsitate funtzionala, disidentzia sexuala, landa

eremua, hau da, margena eta aniztasuna, kokatzen dituzte diskurtsoaren ardatz.

Feminismoak desbateretze prozesuak dira ahalduzko prozesu izatearekin batera. Helburua ez da historiak ukatu digun boterea geureganatzea, epikoki. Iraultza beste toki batetik egiten da, sakonago. Hegemonia suntsitu behar da. Margena zentrorra eraman baino, zentroa bera desbateretuko dugu.

Feminismoaren hipermediatikotasunaren aroan, erradikaltasuna ozen mantendu da martxoaren 8an. Oraindik ere, kapitalismoari feminismoa kontrako ez-tarritik sartzea badago. ●

Lanean ongizateaz



PAULA ESTÉVEZ



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
IDAZLEA

Iaz, Baigorriko ibarrean kokatua den Aldude aldeko aldean sei hilabetez bildu ziren herritarrak, lanaren kontzeptuaz gogoetatzeko: zer den lanari lotutako sinbologia, nolako tokia duen lanak gure bizietan edo tokiko ekonomian, eta abar. Gauza batek harritu ninduen solasaldietan: *Ongizatea lanean* gaia agertzean, herritar gehienek adierazi zuten ez zutela horretaz mintzatzeko gogorik, iduri eta balio gabeko gaia zela, denborarik galtzea merezi ez zuena. Zenbaitzuek halere horretaz hitz egin nahi izan zuten. Besteek erantzun zieten normal zela lana zailtasuna, arrangura eta minarekin lotzea, lana betidanik egin behar dorde eta latza delako. “Benetako euskaldunek” bekatu-tzat zeukaten alferkeria.

Baserri aldean, baita hirietako lantegietan ere hedatua den ikusmolde horrek badu zerikusirik *Biblia*-k azaltzen duen lanaren kontzeptzioarekin, hain zuzen ere Jainkoaren madarikazio edo zigor saihetsezinarekin. Erran beharrekoa da, Ipar Euskal Herriari dagokionez bederen, hizkuntzalari frantsesek beren falta badutela ere lanaren ikusteko manera horretan. Alabaina, orain arteko linguista eta orokorrean irakasle

gehienek erakutsi dute frantsesezko *travail* hitza latinezko *tripaliare* aditzetik datorkeela, horrek erran nahi duelarik “sufriarazi, torturatu *trepalium* tresnarekin”. Lan egitea torturatua izatea liteke, fisikoki lehenik, ondotik moralki. Gainera, Blaise Pascal XVII. mendeko filosofoaren gogoeta famatuen ildotik ariz, uler daiteke oinaze hori onartzekoa dugula. Ezen, logelan geldirik egoten bagina, nagi, galdera existentzialak bururatuko litzaizkiguke, eta heriotzari buruzko pentsaketek eroarazi gaitzakete. Aterabiderik ez, beraz: lana ezinbesteko pairamena genuke, bizi osoan onartu beharra, sufrimendu handiagoak, hots existentzialistak, ez gaitzaten leher. Horra hor bidea zabaldua daukatela ameskeria saltzaileek, aisialdi hutsal banatzaileek.

Bizkitartean, hizkuntzalari frantses berri batzuek frogatu dute *travail* hitzak, *trabajo* izenak bezala, etimologikoki erran nahiko lukeela “xede berezi bati buruzko tentsioa, oztopoak oztopo”. Hara non lan egitea bilaka daitekeen indar baikorra: bizitzari zentzua ematen dion oldarra. Arrunt bestelako ideologia batean oinarritu dezakegu gure burua horrelako azalpenarekin.

Hizkuntzalaritzatik datorren anekdota esanguratsu horrek ongi islatzen du, ene ustez, egungo lan mundua. Gaztetan loratze menturan hautatzen da lanbide bat edo bestea, hainbat traba gaindituz, baina gero eta zailago da oso ongi sentitzea lanean, nagusien edo gizartearen presioa sentitzen duelako, lan zama gero eta handiagoa bere gain hartu behar duelako, haurrik eta familia bizitza sanorik ez edukitzea aukeratu behar duen lan erritmoarengatik, etengabeko beldurrean iraun behar duelako. Lanean ongi izatea lan ona egiteko eta lanean zorionsua izateko, hori bai dela egungo erronka premiatsuenetarik.

Gogora heldu zait hemen Jean de La Fontaine idazle jeinutsua. Ez zuen gizarteak inposatutako lan torturatzailearik egin bere bizitzan, idazle soila izan zen –eta probokazioz bere epitafiotzat hitz hauek asmatu zituen: “Honek denbora ongi baliatu zuen: erdia lotan, bestea alfer”. Baina idazle gisa langile miresgarria izan zen, *Laborariak eta honen haurrak* alegian agertzen den gisara, lanak edozein altxorrek baino gehiago aberastu baitezake jendea –lanean ongi sentituz geroz–. ●

Greben hari morea



ENDIKA ALABORT AMUNDARAIN
EKONOMIALARIA

Ekonomia ikastean ez dut inoiz greba kontzeptua ikusi, nahiz eta hauen arteko lotura erabat zuzena izan. Arrazoia agerikoa da: botere ekonomikoak definitzen du zer den ekonomia. Emakumeek egindako grebatan ikusezintasuna bikoitza da, analisisa gizonen eta kapitalaren betaurrekoekin egiten delako. Tarte hau baliatu nahi dut gu-rean egindako batzuk gogorarazteko.

1889 urtean Bilboko Santutxu auzoan lantegi gutxi batzuk zeuden. Horien artean, txakolindegiren bat eta zigarroak egiteko lantegi bat zegoen. Langile gehienak emakumeak ziren, lan baldintza kaxkarrak zituztenak: miseriazko soldata eta amaierarik gabeko lan ordutegia. Emakumeek martxoaren 8an greba hasi zuten, lan baldintzak hobetzeaz gain, lantegiko zuzendariak ekoizpena atzera botatzeko zuelako, egindako zigarroak kalitate txarrekoak zirela eta. Azpimarratu behar da tabakoa oso kalitate baxukoa zela eta mekanizazioak langileengan presio handiago eragiten zuela. Arduraduna leihotik bota zuten; bost egunen buruan emakume hauek eskatutakoa lortu zuten.

Emakumeak protagonista izan diren grebak ugariak dira. Antzinako eta gaurko grebak lotzen dituen hari morea jarraitu besterik ez dugu, greba orokor feminista barne

1903an, urte gutxi batzuk geroago, Iruñeko emakume langileak beste gatazka baten protagonistak izan ziren. Calzados López enpresak lanean emakume oso gazteak zituen, asko haurrak ziren. Lan baldintza okerreaz gain, enpresak soldata murrizketa bat aplikatu nahi zien; honen aurrean apirilean 60 langiletik 48k greba hasi zuten.

1905 urtean emakumeek Barakaldo eta Sestaon alokairu greba egin zuten. Garai horretako sindikatuek, etxebizitzak kostu hazkorrekin aurre egiteko alo-

kairu grebak martxan jartzea adostu zuten. Jabeek etxegabetzeak martxan jarri zituzten baina Barakaldon, emakumeek aurre egin zieten, kaleak euren etxeko tresneria eta altzariekin okupatu, etxegabetzeak ekiditeko. Garraiobide guztiak gelditu zituzten, Bilborekin konektatzen zuen trena ere. Gatazkak ondoan dagoen Sestaora salto egin zuten: 2.000 familia greban zeuden. Bizkaiko Labe Garaiak, Nerbioiko ontziolak eta tipografoak greban hasi ziren. Nahiz eta gerra-egoera deklaratu, Bilbo Handiaren bizitza ekonomikoa hilabete batez gelditu zuten.

Hamarkada batzuk geroago, Iruñeko emakumeek frankismo garaiko greba orokorra izeki zuten. Arrautzen eta olioaren prezioak zirela eta, emakumeek Zabalguneko Merkatuan protesta hasi zuten, hirian lau eguneko greba orokorra bultzatuz.

Emakumeak protagonista izan diren grebak ugariak dira. Antzinako eta gaurko grebak lotzen dituen hari morea jarraitu besterik ez dugu, greba orokor feminista barne. ●



**Bozka ezazu
blogik gustokoena**
Otsailaren 25etik
martxoaren 24a bitarte

SARIAK

Bernat Vidal artistaren garaikurra
200 euroko diru txekoa
ARGIA kolaboratzeko aukera



KATEGORIAK Kultura / Gizartea / Zientzia / Aisia / Politika / Teknologia

blogetan.eus

æk 21.korrika

2019ko apirilaren 4tik 14ra **GARESTIK GASTEIZA**



Noiz pasatuko da
Korrika nire herritik?

www.korrika.eus webgunean ikusi
herri eta ordutegi guztiak



LARRE MOTZEAN ZAILDUTAKO LABORARI TEMATIAK

Lurrari, ekoizle txikiei, baserriari eta elikadura burujabetzari lotutako proiektu ugari ari da sortzen Euskal Herrian azken urteotan, kontsumo elkarteak eta baserritarren sareak esaterako. Baina, ez al da kontraesankorra ustezko garai "oparo" honetan proiektu agroekologiko ugarik ateak itxi behar izatea? Edo nekazari asko egoera oso zailan egotea? Ba al dakigu nola bizi diren gure hurbileko ekoizleak?

TESTUA | **GARAZI ZABALETA**
ARGAZKIAK | **DANI BLANCO**

Ez da erreportaje honen asmoa, ezta bertan ageri diren ekoizleena ere, pena ematea, nekazariak etengabe negarrez ari direnaren irudia eman izan baita askotan. Beharrezkoa da, ordea, sarritan erakusten ez den nekazaritzaren beste aldea argitara ateratzea, postalean ageri diren zelai eta baserri eder horien atzean dagoen errealitatea erakustea. “Kalean, azoketan edo prentsan ateratzen garenean nekazal munduaz ematen den irudia askotan oso idilikoa eta folklorikoa izaten da, ez dugu atzean dagoena gehiegi erakusten”, azaldu digu Ramon Roa Arabako barazki ekoizle eta EHKOlektiboko kidea.

Eta, zer dago bada, postalaren —edo otzararen— atzeko aldean? Badira eu-

ren lanak asebetetzen dituen ekoizleak, baina badira ere bai egoera zail eta prekarizatuak bizi dituztenak: egitasmo agroekologiko ugarik hasi eta berehala itxi behar izaten ditu ateak. Hasiberriek soilik ez, urte luzeetako ibilbidea duten proiektuek ere arriskuan ikusten dute euren ibilbide osoa kateko edozein elementuk huts egiten duenean. Zaurgarritasun egoera etengabe bizi dira nekazariak. Horren erakusle da, esaterako, Frantziako Estatuko datu gordin hau: bi egunetik behin nekazari batek bere buruaz beste egin zuen 2007-2011 urteetan, Frantziako Osasun Publikoak eta MSA nekazal-mutualiak 2016an plazaratutako txostenaren arabera.

JOSEBE BLANCO
EHKOlektiboko kidea bere ardiekin
Bergarako Pikunieta baserrian.

MAITE SANCHEZ
Abeltzain goizuetarra bere behiekin.







ANER GARITAONANDIA AXPEKO (ATXONDO) BASERRIAN LANEAN. "BASERRIAN ARI ZARENEAN, EDOZEIN LAN TXIKI ZEUK BAKARRIK EGITEAK ASKO ZAILTZEN DU DENA, BAINA HORI BAINO GEHIAGO, NIRE BAKARDADE SENTSAZIOA DA INORK EZ NAUELA ULERTZEN", DIO.

HARI BATETIK ZINTZILIK

Ahuldade egoera sektore osoan eta modu orokorrean gertatzen dela diote EHKOLEktiboko Ramon Roak eta Josebe Blancok. "Jakín badakigu kalean ere kontua latz dagoela eta prekarietatea nagusi dela, baina baserri munduan egoera are gogorragoa da", kexu da Blanco. Gure jendartean estrukturala den prekarietatearen domino-segidan, nekazariak koxka bat beherago daude, euren iritziz, hirian bizi den jendeak diru-sarrera duinik ez badu, baserritarron produktuak nekez erosiko dituelako.

Azken urtean uholdeak sufritu dituzte baratzeetan, eta euren asmoak hankaz

gora jarri ditu horrek. "Aurten pasa dugun guztiak behartu gaitu proiektu osoa -Salcedo herrian kokatutako Tierrapapeltijera ekimen agroekologikoa- bizkar gainean hartzea eta esatea 'animo, goazen aurrera!'. Baina, zenbat aldiz egin dezakegu hori?", galdetzen du. Proiektua abiatu berritan, indar eta ilusio handia dagoenean, aurrera egitea errazagoa dela diote. Baina nekatuago edo animoz baxuago egonda horrelako egoera batek harapatuz gero, dena pikutara bidaltzeko aukerak biderkatu egiten dira.

Antzeko bizipena izan du Atxondoko (Bizkaia) Aner Garitaonandia Berasaluze baratzezainak. "Baserri ondotik pasa-

tzen diren bi errekek gainezka egin eta uholdeak izan genituen: ortu guztia eta lurra urak eraman zituen, landatuta nekana, itxiturak eta hesiak...". Lauzpabost hilabetez diru-sarrerarik gabe egon da, eta lehengaiak eta azpiegitura berritzeko beharrezko materiala berriro erosi behar izan ditu; gastua ezezik, lan karga ere bikoitza izan da. Hala eta guztiz ere, azokara tomaterik ez eramatea leporatu dio bakarren batek.

Gipuzkoako esne behizain batek -izenik ez jartzea eskatu digu- azken urtean bizitakoak ere sektorearen zaurgarritasuna agerian uzten du. Urteetan, gaztagile txiki batek erosten zion bere hamar



behietatik ateratzen zuen esnearen parterik handiena, baina egun batetik bestera, gaixotasun bat medio, ekoizleak esnea hartzeari utzi eta esnegileak bere tankeak goraino beteta zituen, produktua atera ezinik. “Proiektua jada egonkortua zegoela eta denbora luzez horrela jarraituko nuela uste nuenean, bat-batean, kanpotik kolpea iritsi eta berriz hutsetik hasi beharra izan dut”, dio. Kolpe ekonomikoa dago batetik, baina askotan emozionala are okerragoa dela kontatu digu ekoizleak.

POZIK, BAINA ZAILTASUNEKIN
Elkarriketatu guztiek behin eta berriz errepikatzen dute egiten duten horrek

oso pozik daudela eta ezergatik ere ez luketela ofizioa aldatuko. “Pasioz bizi dugu gure lana, eta ia-ia, pasiotik bizi gara”, dio Maite Sanchez Goizuetako (Nafarroa) behizainak. Pasiotik eta poztasunetik soilik ezin da bizi, dena den, eta sektorea horretan besterik ez bada oinarritzen zail izanen du etorkizunean bizirautea. Behin kalkuluak egin zituzten Sanchezek eta bere seme-alabek, eta soldata orduko eurotik dezentez beherago ateratzen zitzairen. “Guk ekoizten dugun horretatik jateak salbatzen gaitu, bestela ezinezkoa litzateke horrela bizitzea”, esan digu.

Ildo berean mintzo da EHKolektiboko Blanco: “Guk asumitzen dugu gure soldata osoa ez datorrela eurotan, egindakoarekin pozik sentitzeak ere balio handia duela. Baina horrek ez digu jaten ematen”. Lan karga eta ardura handiak hartu behar dituzte nekazariak soldata txiki bat atera ahal izateko, eta kanpo faktore ugariak diru-sari horretan eragin itzela dute: klimak, txakurren edo bestelako harropakariaren erasoek, gaixotasunek eta istripuek, furgoneta edo makinaren bat izorratzeak, erosleen partetik aldaketak... Hamaika dira proiektua zapuztu dezaketeten faktoreak.

Ekoizleek salatu dute jendeak produkzio-modu bera espero duela nekazariengandik eta fabrika batetik: lineala, beti bera. Naturarekin lan egiteak, baina, ezinezko egiten du hori. “Gertatzen zaizkigun arazoak normalak dira, naturak eragindakoak askotan; hari kontra egiterik ez dago, baina aintzat hartu behar dugu edozein ezuste txikiren ondorioz proiektu osoa kolokan jar daitekeela”, dio Roak.

Zein da arazo horien guztien aurrean agroekologian diharduten nekazari txikiak administrazioak ematen dien konponbidea? Bada, bat eta bakarra, ekoizleek diotenez: “Handitu zure produkzioa, industrializatu”.

EREDU AGROEKOLOGIKOA, BABESGABE

“Nekazari txikiok behartuta gaude makinak bezala funtzionatzera; horregatik ezin gara gaixotu, ezin dugu istripu bat izan, ezin zaigu ezertxo ere gertatu”, dio Blancok. Ekoizleen hitzetan, administrazioetik nekazaritza industrial

lik hartzen da kontuan, ekoizle txikiak kalterako: egiturak, diru-laguntza sistemak, aseguruak, eskakizun sanitarioak... guztia dago nekazaritza eta abeltzaintza eredu industrialera begira. “Administrazioak dio denentzat tokia dagoela, industriarentzat eta ekoizle txikiontzat. Baina horrek tranpa du atzetik, guk ezin dugulako inolaz ere horien prezioekin lehiatu”, esan digu EHKolektiboko artzainak.

Akatsik handiena, ordea, bi ereduak ez desberdintzea da, ekoizleen ustez. Alegia, hogeitaz gaita egin nahi dituen artzain txikiari eta esnekien enpresa erabat industrializatu bati eskakizun berak egitea. “Bi ereduak erabat ezberdinak badira, administrazioak biei eskatu eta eskaini beharrekoa erabat ezberdina izan beharko luke”, dio Roak. Horri lotuta, agroekologiaren inguruan dagoen “erabateko ezezagutza” salatzen dute: eskoletan eta unibertsitateetan ez da agroekologia erakusten, eta teknikariak ez daude prestaturik eredu horretan diharduten proiektuen gainean balorazioak egiteko.

Gauza bera gertatzen da aseguruarekin. Gipuzkoako esnetarako behi ekoizleak hitz egin digu ‘agroa-seguru’ delakoen inguruan: “Oso subentzionatuta daude, diru publiko mordoa sartzen da hor, baina parametro erabat industrietan jokatzeko dute”. Esaterako, Gipuzkoako esnetarako behien bizi-raupena lau urtetakoa da batez beste, eta aseguruentzat

adin horretatik gorako behiek ez dute ezer balio, horiei zerbait gertatuz gero ekoizleek ez diete ia ezer ematen. Aldiz, eredu agroekologikoan ari diren baserri-tarren ukuiluetako behien batzabesteko adina altuagoa da eta, beraz, aseguruak ez diete askorako balio.

Sanchez, Goizuetako behizaina, oso kritikoa da egungo diru-laguntza sistemarekin. Azaltzen duenez, milioiak balio dituen pabilioi bat egiteko laguntzak oso erraz ematen ditu administrazioak, baina aldiz, oso zaila da desbrozagailu baterako laguntza lortzea. Blancok ondoko hausnarketa egiten du: “Guk, ekoizle txikiok, hirugarren munduko baldintzak dauzkagu, baina lehenengo munduan bizita. Desoreka horiek estaltzeko sortu dute diru-laguntza sistema”.

**KANPO FAKTOREEKIKO
(EGURALDIA, HARRAPAKARIEN
ERASOAK...) DEPENDENTZIAZ
GAIN, NEKAZARI TXIKIAK KEXU DIRA
MAKINAK BAILIRAN FUNTZIONATZERA
BEHARTURIK DAUDELAKO.
“HORREGATIK, EZIN GARA GAIXOTU,
EZIN DUGU ISTRIPIURIK IZAN,
EZIN ZAIGU EZER GERTATU”.**

LABORARIEN BAKARDADEA

Bakartuta eta kasu askotan isolatuta bizi direla kontatu digute laborariek. Bakardade fisikoa ere bai, baina bereziki bakardade emozionala da aipatzen dutena. "Baserrian ari zarenean, edozein lan txiki zeuk bakarrik egiteak asko zailtzen du dena, baina hori baino gehiago, nire bakardade sentsazioa da inork ez nauela ulertzen", dio Garitonandia baratzezainak. Bizitza soziala edukitzea konplikatu dela diote guztiek, baita familia eta lana uztartzea ere. "Nik bikotekidearen babesa dut, ez soilik ekonomikoa. Udan baratzean jo eta ke lanean ari naizenean norbaitek egon beharra du umeekin. Beraz, zama hori ez da soilik nekazariarena, ondokoarena ere bada", dio ekoizle bizkaitarrak.

Zentzu horretan, baserria mendian eta hirigunetik urrun egoteak suposatzen diena azaldu digu Blancok: "Goizero 60 kilometro egin behar izaten ditugu haurrak eskolara eramateko. Bi auto izan behar al ditut etxean horretarako? Ez al da derrigorrezko hezkuntza?". Haren ustez, arazoa da administrazioak baserritarrak beren osotasunean aintzat ez hartzea, beraiek lan ezezik bizi ere han bizi direla kontuan izatea. Kasu

askotan, baserritarrek ez dute garraiorako eta bestelako zerbitzu publikoetarako sarbiderik.

Eta gaixotuz gero zer? Guztiek antzeko erantzuna ematen dute: "Gaixotu? Zer da hori?". Ez gaixotzeko modurik onena autonomo izatea omen da. Baserritarrek badute, dena den, beste lanbideetako autonomoengandik desberdintzen dituen zerbait: kanpo faktoreekiko erabateko dependentzia. "Elektrizista batek badaki egiten duen lanagatik kobratuko duela, guk ezin dugu hori jakin: lehenik, ez dakigu barazkiak ongi aterako diren, ondoren salduko ote ditugun, eta saltzen baditugu zein prezioetan...", dio Garitaonandiak. Ziurtasun falta erabatekoa da.

ATERABIDEA, KOLEKTIBOTASUNETIK

Euskal Herriko nekazariak bizi duten errealitatearen alderik ilunena da erreportajeaz azaldu dena. Ekoizle guztiek argi dute, baina, jende oso gutxi dagoela egiten duenarekin haiek bezain pozik. Ez dago zalantzarik, egoera zailenetan bizibide horrekin jarraitzea erabakitzen baitute laborari gehienek. "Badirudi dena dela errentagarritasuna. Noiz neurtuko

dute jendearen poztasun maila?", galdeztzen du barazkigile bizkaitarrak.

Aipatutako zailtasun eta oztopo horiek guztiak kontuan izanik, argi dago jendarteak eta administrazioak gaia seriozitatez hartu eta zerbait egiteko ordua ere badela, baserriaren desagerpena saihestu nahi bada behintzat. "Agian jendeak ez du nekazari txikirik nahi, baizik eta dena industrializatzea eta kito", dio EHKolektiboko Roak. Agian, baserria nahi dugu mugatu postaleko argazki horretara, eta baserriko bizi-modua urtean behin jai folklorikoetan janzten dugun jantzi dotoretara.

Asmoa bestelakoa bada, ezinbestekoa izanen da baldintzak hobetzea. Nola? Ez dago formula magikorik, baina ekoizleek zenbait pista eman dute: proiektu kolektiboa(goa)k sortzea, baserriaren etorkizuna bermatzeko eredu eta modu berriak bilatzea, baserritarren arteko elkartasuna bultzatzea eta administrazioek zein jendeak euren ardura asumitzea. Blancok argi azaldu du: "Galdera ez da zer egin behar dugun guk, baizik jendarteak zer egin behar duen. Zeren nik ez dut ulertzen aparte gaudenik, puzzle bereko bi pieza garela baizik". ●

hartzu eman

udalbiltza.eus

esperientzien bankua

#euskalherria #burujabetza

UDALBILTZA PARTZUERGOKO

Gipuzkoako Foru Erkidegoa
Euzko Legebiltzaria

LEKORNE MENDIONDE

Babesleak: ARGIA berria IRRATIARI mediabask.

IZEN-EMAN!

Politika parte hartzailerak
Hirigintza genero ikuspegitik
Euskalaren sustapenerako ideia berriak
Etxebizitza arazoari alternatibak

Ikusi egitaraua udalbiltza.eus webgunean!



ITZIAR PORTABALES

LOGOPEDA ETA IRAKASLEA

“Aurrez aurre hitz egiteko neurria eta ohitura galtzen ari gara, gero eta bertigo handiagoa diogu filtrorik gabe aritzeari”

Osasun arloko diziplina da logopedia. Hizketa, komunikazio, ahots eta irenste zailtasunak prebenitzeaz, detektatzeaz, ebaluatzeaz eta artatzeaz arduratzen da. “Zenbaitentzat, ordea, R-a ongi ahoskatzen irakasten dutenak gara, oraindik ere”. Itziar Portabales (Donostia, 1985) logopeda eta irakasleak izen bereko kabineteen dihardu “gizartean bere lekua egiten ari den jardun ezezagun hau” garaiko beharretara egokitzen.

TESTUA ETA ARGAZKIAK | **IGONE MARIEZKURRENA**

Une honetan aurrez aurre ari gara baina, hona iritsi arte, email eta whatsapp mordo bidali diogu elkarri. Kosta egiten da, egun, komunikazioa txatik, mezularitza elektronikorik eta sare sozialik gabe ulertzea. Geroz eta gehiago idatzi eta gutxiago egiten dugu hitz. Nolako eragina du lengoaiak trantsizio honek gure komunikazio gaitasunean?

Oraindik goizegi da balizko ondorioak baloratzeko. Ahozko komunikazioak eskaintzen dituen baliabide askoren erabilera murrizten ari gara: ahotsaren tonua eta intentsitatea, gorputz jarrerak, keinuak, aurpegie-

rak, begirada eta abarrak; gehienak desagertu egiten dira mezu, *atsegin dut* edo iruzkin bidez komunikatzen dugunean, nahiz eta emotikonoetan eta halakoetan bilatzen ditugun ordezkioak. Komeni da trantsizio honetaz jabetzea, baina ez dut uste gure belaunaldikook gaitasun horiek galtzera iritsiko garenik. Aldiz, jada giro honetan jaio, hazi eta hezten ari diren ume batzuen kasuan, ahozkoari lotutako lengoaia -gaitasun asko leku txikia izaten ari da garapen prozesuetan, eta horrek bai baldintzatuko du heldutasunean izango duten komunikatzeko manera. Ez dakigu nolakoa izango den, baina desberdina izango da, ziur.

Kasu askotan, gurasoek ez dute astirik eta pazientziarik izaten haurrei esperimentaziorako tartea uzteko



Bat-batekotasunari beldurra hartu al diogu? Testu, argazki eta audio bidezko elkarrizketa ez-jarraiaren atzean ezkutatzen garelako dirudi.

Alde batetik, denbora nahieran kudeatzeko aukera eskaintzen digute; elkarrizketa edo kontu jakin bati nahi dugunean, ahal dugunean edo komeni zaigunean kasu egiteko, aitortzen diogun garrantziaren arabera. Baina bada gehiago: ahotsa, ahoskera, gorpuzkera eta lehen aipatzen genituen gainerako baliabide horiek, baldin eta erabilera menperatzen badugu, aliatu onak izan daitezke nahi duguna komunikatzeko edo helburu jakin batekin aritzeko. Baina salatari handiak ere badira, informazio asko darielako. Zentzu horretan, baliteke testu, argazki eta audioen lubakietan babesa bilatzea, hain justu, gure nahien neurrirako komunikazioa ahalbidetzen digutelako.

Gure proiektzioak elikatze erabil-tzen ditugu, hortaz?

Baliteke. Mezu bat behin eta berriz idatzi eta ezabatu dezakegu hitz komenigarrienak aurkitu arte. Gauza bera argazkiekin. Hiru sevillana jarri eta pozik eta alai gaudela ulertarazi dezakegu, nahiz eta gure gogoia agian oso bestelakoa izan; pantailaren beste aldekoak ez ditu gure begi bustiak ikusiko. Eta, hala, konbientziazko mezuak eraikitzen ditugu, kasu batzuetan errealtatetik urrune-koak. Baina gorpil zoroa da. Modu honetan zenbat eta gehiagotan jardun, orduan eta gutxiago trebatzen garelako aurrez aurrekoan; neurria eta ohitura galtzen ari gara, eta geroz eta bertigo handiagoa emango digu filtrorik gabe aritzeak, gure salatari guztiekin.

Hitz egidazu pantailen kulturen, tabletari begira hazten ari diren umeen gabeziez. Ba al da ondoriorik gaur egun?

Gurasoen arreta eta estimulazio faltaren ondoriozko kasuak iristen zaizkigu tarteka. Nagusiki ahozko trebetasun komunikatiboekin zerikusia duten zailtasunak edo atzerapenak izaten dituzte: batez bestekoa baino geroago hasten dira hitz egiten eta esaldiak eraikitzen, ez dute ingurukoekin elkar eragiten. Honek, gerora, adin berekoekin harre-mantzeko arazoak dakartza, eta ume menpekoagoak izaten dira, komunikatzeko gaitasunak ematen duen autonomia falta zaielako: eskatzeko, galde-tzeko, kexatzeko, edozer adierazteko. Ikasketa prozesuan motelago aritzen

dira erronka berri guztien aurrean: idazketa eta irakurketa, eragiketak eta abarrak. Esan bezala, etxeko hutsuneekin zerikusia duten kasuak izaten dira. Gauza jakina da txikiei hasiera-hasieratik hitz egitea komeni dela, abestea, irri egitea, kontuak kontatzea; ezer ahoskatzeko gai ez diren arren entzuten dutelako, eta ahots eta tonu ezberdinak identifikatzen has daitezkeelako, lengoaiarekin zerikusia duten garapen-mekanismoak martxan jarritz. Aurrerago, garrantzitsua da elkarrizketak bideratzea, esateko dutena entzutea. Umeak sehaskan beren baitan, telebistari nahiz tabletari begira edota bideoekin jolasean bakarrik uzten baditugu, nekez gertatuko da halako ezer.

Beste zein mailatan islatzen da aipatzen zenuen erritmo inposaketa hori?

Beste kasu batzuetan gurasoek ez dute astirik eta pazientziarik izaten haurrei esperimentaziorako tartea uzteko. Esate baterako, oso garrantzitsua da umeak testura nahiz zapore ezberdinetara ohitzea, murtzikatzen ikastea, liseriketak bideratzea. Horretarako, jakina, otorduei denbora eskaini behar zaie, eta beti ez da erraza izaten. Askoz azkarragoa izan daiteke haragia, barazkiak, arroza... dena pure bilakatu eta azkar batean irentsaraztea. Baina ohitura horretatik degluzio arazoak erator daitezke, mingain hipotonikoa (indarrik gabekoa) edota liseriketa-aparatuari loturiko konplikazioak.

Oso ezkor aritu gara teknologia berrien eta pantailen inguruan. Dena ez da negatiboa izango, ordea. Balia-bide bisualago hauek onura itzelak dakartzate ahozko edota idatzizko mintzamenerako zailtasunak dituzten pertsonentzat, ala?

Jakina. Eta pertsona hauekin aritzen garen profesionaloi, eta baita senitar-teko eta lagunei ere, izugarri erraztu digute zubiak eraikitzea. Irudietan oinarritutako programen bitartez, adibidez, askoz errazagoa da Autismoaren Espektroko Nahasmenak (AEN) edota Lengoaiari loturiko Nahasmen Espezifikoa dituztenengan hurbiltzea, haien mundua ulertzea. Eta eurek ere baliabide hauetan aurkitu dute hitzen bidez komunika ezin zezaketena helarazteko bidea; ictus baten ondorioz hitz egiteko gaitasuna osorik edo partzialki galdu duten pertsonen bezalaxe.

Zaharturiko gizartea ate joka dugu. Bizi-itxaropena luzatu da, baina adinari loturiko gaitzak –Alzheimerra, Parkinsona edota endekapenezko zenbait– izugarri hedatu dira. Zer nolako erronkak dakartzkio horrek logopediari?

Geroz eta gehiago, halako gaitzen ondoriozko kalteen garapena mantsotzea egokituko zaigu. Logopedon kasuan, nagusiki irensketa nahiz arnasketa arazoak eta jariotasunaren galera izaten dira. Baina tratamendutik harago, aha-lerin handiena kontzientziaziora eta prebentziora bideratu behar dugu. Jendarteak barneratu du kirola egitea eta elikadura zaintzea ezinbestekoak direla gorputza osasuntsu mantentzeko. Eraman dezagun logika bera adimenaren esparrura; gure buruak ere entrenamendua eta zaintza behar ditu. Era-giketa txikiak buruz egitea, sudokak eta letra-zopak, telefono zenbakiak edota erosketa-zerrendak buruz ikastea, adibidez. Halako keinu txikiek aipatu ditugun gaitz horiek agertzea atzera dezakete, edota hauen ondoriozko kalteak mugatu eta mantsotu dagoeneko diagnostikoa dutenen kasuan.

Garaiko gizartearen zein beste bereizgarri islatzen dira zure kontsultara jotzen duten pertsonen beharretan?

Lehen baino pertsona transexual gehiago izaten dugu orain, eta maizago. Gehienek ahotsaren tonua aldatzeko laguntza nahi izaten dute, edota hormona bidezko tratamenduak berak ahots-kordetan eragindako aldaketak kudeatzeko aholkularitza bilatzen dute. Bestalde, tratamendu estetikoak izugarri zabaldu dira azken urteotan, eta botoxaren eta antzeko infiltrazioen ondorioen lekuko izaten ari gara: aurpegi-ko muskulaturaren mugikortasuna blokeatzen dute, eta hau berreskuratzeko guregana jo ohi dute.

Maiz hezitzaileak, medikuak, psikologoak, fisioterapeutak eta logopedak aritzen zarete kasu beraren inguruan lanean. Zer moduzkoa da diziplinen arteko harremana?

Zorionez, eta pixkanaka bada ere, harremana aberasten eta normalizatzen ari da. Dena dela, gure diziplina aspal-

dikoa bada ere, logopedian espezializatutako profesionala nahiko berria da lehen beste batzuek hartzen zutelako beren gain. Oraindik ezjakintasuna antzematen dut, tarteka gureganako mespretxua ere bai, eta batzuetan, kasuak guregana zuzentzeko ohitura edo erreflexu falta.

Eta jendarteak? Ezagutzen al zaituzte?

Azken urteotan ikerketa pila bat kale-ratu dira logopediaren alorrean, formakuntza etengabea ari gara, eta dibulgazio mailan ere lan handia egin dugu. Profil anitzeko jendea ohartu da ahotsa, ahoskera, arnasketa eta aipatu ditugun beste hamaika kontu zaindu eta lantzeko beharraz, eta guregana jotzen dute: kazetariak, *coach*errak, irakasleak, ile-apaintzaileak, bertsolariak, abeslariak, mota guztietako hizlariak eta abar. Beste batzuentzat, ordea, “R-a ongi ahoskatzen irakasten dute-nak” gara oraindik ere. ●

“

Ahalegin handiena kontzientziaziora eta prebentziora bideratu behar dugu



mitxelena
NEURRI HANDIKO MEKANIZAZIOA



EZIAGO POLIGONOA, 21
HERNANI

info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com

“Halako zortzi emakume pusKaren aurrean zaudenean, kontakizunak indartsuak dira”

Etxe honetako kazetari Onintza Irureta Azkunek (Zestoa, 1974) *Berdea da more berria* liburua kaleratu berri du. ELA sindikatuaren Manu Robles-Arangiz Institutuak eta ARGIAk elkarlanean argitaratutako lanak 2016ko martxoan hasi eta 378 egunez luzatutako Bizkaiko zaharren egoitzetako langileen greba du hizpide. Zortzi grebalariren begietatik kontaktzen du Iruretak emakume langileen borrokan esanguratsu bilakatu den greba.

TESTUA | AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

ARGAZKIAK | DANI BLANCO

Bizkaiko egoitzetako grebaren historia idaztea egokitu zaizu. Liburuan, langile borrokaren eskutik dator borroka feminista.

Bai, gai zentrala hori da, ez dut batere lanik izan greba borroka feministarekin uztartzeko. Greban zeudela pixka bat gerturatzen bazinen, hori ikusten zen. Solaskide izan ditudan Manu Robles-Arangiz Institutuko kideek zein ELAko sindikalistek oso garbi zeukaten: beraien ustez greba historikoa izan da, baina ez langile borroka izan delako. Oso garbi zeukaten greba honek zein balio eta ezaugarri zituen.

Zerk egiten du greba hau borroka feminista?

Badira hainbat elementu borroka feminista izan dela erakusten dutenak. Hasteko, kalean zeudenak emakumeak ziren, sektoreko langileen %95 gutxi-gorabehera emakumea baita. Eta ez da kasualitatea feminizatua izateaz aparte, sektore prekarizatua izatea. Bada bigarren elementu oso inportante bat ere: ez da edozelako lan sektorea. Zaintza la-

netara dedikatzen dira emakume hauek, zahar etxeetan zaintzaileak edo gero-kultoreak dira. Lehen emakumeek doan egiten zuten lana egiteagatik kobratzen dute, baina ez lanpostu duin batean.

Egoera hori izanik, lan baldintzak hobetzeko borrokatu nahi dute, beste hainbeste sektorek egiten duten moduan. Baina gauzak korapilatzen hasten dira konturatzen direnean dauden egoeran daudela emakumeak direlako. Beraiek esaten dutenez, grebak iraun bitartean patronalak oso garbi utzi die ez dietela langileei hitz egiten, baizik eta emakumei. Negoziazio mahaietan, behin eta berriz, harridura adieraziko zaie soldat-ak igotzeko eskariaren aurrean: “Zuen soldatak beti izan dira osagarriak. Lehen ez zenuten kobratzen, beraz orain pozik egoteko moduan zarete”, tankerako esaldiak entzun dituzte.

Ahalduntze baten kontakizuna dela irakurri dizut.

Greban hainbeste irautea zaila da, oso gogorra izan da beraientzat, baina era berean aldeko gauza batzuk lortzeko ere

balio izan die. Irauteak eman du ahal-duntze prozesu luze bat, bai indibiduala zein kolektiboa. Baziren, grebalariren artean, langile borrokan eta borroka feministan oso emakume zailduak, kontzientzia eta formakuntza handikoak. Baina bestelako emakume pila ere bazen: gazteak, lanean hasiberriak, edo emakume oso helduak izan arren bizitzako esparru guztietan bigarren mailako papera bete dutenak, menpekoaren paper hori, konformismoarena. Azken hauek lantokira ere hori eraman dute: beldurra. Kalera ateratzeko, kexatzeko, lana galtzeko beldurra. Grebak iraun duen denbora horretan lortu dutena da zaildutako emakumeek besteak hauspotzea. Eta gero, kolektiboan ahalduntzea.

Testigantzetan, zuzendaritzako emakumeek eginiko boterearen erabilpen patriarkala kritikatu dute behin baino gehiagotan. Beraiek ezberdin gorpuztu dute boterea. Aipatu ahalduntze feministaren ondorioz, pentsa daiteke.

Galdetu gabe, behin baino gehiagotan atera duten zeozker da. Bitxia da nola





AMAIA LEKUNBERRI

LIBURUAREN AURKEZPENA: BILBON EGINDAKO LIBURUAREN AURKEZPENAREN OSTEAN, IRURETA ELKARRIZKETATU DITUEN HAINBAT GREBALARIKIN.

kontatu duten askotan gizonezko batekin edukiko zituzketen harremanak izan dituztela boterea zeukaten emakumeekin, eredu maskulinoa hartzen zutelako praktikan, eta beti zentzu txarrean. "Zaintza lanetan ari zarete, ikasketa gutxi dituzue... bada zer nahi duzue?" bezalako usteak zuzendaritzako emakumeen artean ere aurkitzen zituzten. Seme-alabak dituzten zuzendaritzako emakumeekin kontziliazioaz-eta hitz egitean harritu egiten ziren grebalariaik, hainbat anekdotatan kontatu dutenez. Emakumeak izan arren, ez zituzten grebalariaik ulertzen.

Nolakoa izan da liburua osatzeko prozesua?

Hasiera izan zen zailena, astunena. Lehenengo kolpean testuingurua lortzen saiatu nintzen, eta horretarako ulertu behar nuen greba hau nondik zetorren. Hamarkada batzuk atzera egin behar izan nuen, iraganean lanean aritutako jendearekin egon, 80ko hamarkadatik hasi eta 2016ra arte prozesu guztia kronologikoko ordenatu. Grebara arteko ibilbidea ulertu behar nuen, gero irakurleari modu txukun batean kontatzeko.

Greba honen arrazoia bosgarren hitzarmena zen, eta berau sinatzea garaipena. Baina bosgarren grebaz aritzeak esan nahi du beste lau egon direla aurretik, eta azken hau kokatzeko gaur arteko prozesua ulertu behar izan dut.

Liburuaren bigarren zatia, testigantzena, gogorra izan da, baina asko hunkitu nau. Zortzi emakumeri egin nien elkarrizketa luzea, greba nola bizi izan zuten kontatzen utzi. Halako zortzi emakume puskaren aurrean zaudenean, kontakizunak indartsuak dira.

Zein irizpideren arabera aukeratu dira zortzi emakume horiek?

ELAko kide Soraya Garciarekin izan dut harreman oso estua eta berak aukeratu zituen zortziak, oso ondo ezagutzen baititu grebalariai. Ez daude iritzira aukeratuta, soslaia begiratuta daude. Badira lehen aipatu ditugun emakume zailduak, ia denak ordezkari sindikalak. Badiren bezala bakarrik afiliatuak diren emakumeak, sindikalismoan, langile borrokan, zein feminismoan askoz ibilbide motzagoa izan dutenak. Feminista hitza bere buruarentzako erabiltzen ez zuenik ere bada. Ezaugarri ezberdinetako ema-

kumeekin jokatu da, kontakizunak ere ezberdinak izan daitezten.

Nolakoa izan da berauek entzutea?

Denetik egon da. Batzuk nahiko pertsona publikoak izan dira greban, eta oso ohituta daude hedabideekin hitz egiten, kalean aurpegia ematen... Holakoekin egindako elkarrizketak izan dira, nola bait esateko, profesionalagoak. Diskurtso aldetik oso landuak, ondo dakite zer esan eta adierazi. Beste batzuek agian ez daukate halako ibilbiderik, baina entzutekoa da esateko daukatena. "Negar batean hasiko dira? Haserretuko dira? Foru Aldundiaren kontra oihuka hasiko dira?" galdetzen nion neure buruari. Baina umoretik eta irribarretsu hitz egin didate, esaten ari direnaz eta bizi izan dutenaz oso kontziente. Baretasunetik kontatu dizkidate pasarte politak, baita egoera gogorak ere, kanporaketa bat adibidez. Horrek harritu nau: edukiaren gogorra eta beraien jarrera.

Irabazitako borroka batez mintzo gara. Zein esango zenituzke izan direla garaipenerako gakoak?

Bata, grebaren jatorria. Honen atzean

potentzia handiko sindikatu bat dago, hamarkada batzuk atzerago Bizkaiko gerokultoreen sektorean apustu egitea erabaki zuena. Sindikatuak egitekoa serio hartu, eta egituraketa oso bat ematen da. Hortik datoz hitzarmenak eta borroka puntualak, langileak formatzen eta prestatzen ari diren bitartean. Ordezkaririk sin-dikalen sare hori, Bizkaiko emakume sare hori sortzea ez da kasualitatea. Sindikatuak lortu duena da greba iristen denetara Bizkaia mailako hamarnaka ordezkaririk sindikal elkarren artean ezagutzea.

Bestetik, gaia sozializatzea lortu zuen. Beraientzako garrantzitsua zen lan baldintzei buruzko borroka soil bat ez zela jakinaraztea, gizarteari zaintza ari zirela ulertaraztea. Ahalegin handia egin dute gaia gizarteratzen, hedabideen bidez esaten: “Zuek ez daukazue honi guztiari buruz ezer esateko? Zuen zaharrak daude hemen, biharko egunean zuek egongo zarete hemen”. Nola ari gara lantzen gai hau, langile batzuen arazoa balitz bezala? Hau gizartearen arazoa da.

Horrez gain, lantoki guztietako arazoak gatazka beraren parte direla ulertu da. Kontatu dutenez, garai batean borroka norbere lantokira mugatzen ziren, eta uste zen norbere egoitzako arazoak konponduz gero denak ondo behar zuela. Uste hori aldatu eta norbere lantokiak aldamenekoaren arazo berberak dituela ulertaraztea lortu da. Norbere lantokitik harago, probintzia osoko kontzientzia hartzeraz igaro dira langileak. “Bizkaian sektore osoan arazo berberak dauzkagu emakumeak garelako eta zaintza lanetan ari garelako, eta denok batera horri aurre egin behar diogu” esatera pasa dira. Horrek kristoren indarra dauka.

Pribatizazioak lagundu du arazoa norbere lantegitik harago doala ulertzerakoan.

Eraunde publikoak pribatizaziorako joera indartzen ari dira, zerbitzuak delegatzen, langileen lan baldintzen gaineko ardura beren ardurapetik kentzen. Gatazkan hala adierazi du Bizkaiko Foru Aldundiak, arazoa patronalen eta langileen artekoa dela, berak ez duela ardurarik. Baina ardura, kasu honetan, Bizkaiko Foru Aldundiarena da. Grebalariek ikasi dute haien lan gatazka ez dela lana egiten duten egoitzako gertaera zehatza. Badakite gizarte eredu baten ondorioa dela haien egoera. Zaintza

lanak baliogabetuak, emakumeen esku, eta egoitzak negozioa helburu bakar duten enpresen atzaparretan.

Gaiaren sozializazioa aipatu duzu.

Liburuak ere lagundu dezake egiteko horretan.

Batzuk pentsatu dezakete kontatzen denak interesa daukala baldin eta bizkaitarra baldin bazara, bertako gatazka bati buruz diharduelako. Baina ez dauka horrekin zerikusirik, gaia guztiz unibertsala dela esango nuke. Elementuak dauzka denok interpellatuta sentitzeko, gutaz ari da. Ez baitu hitz egiten makinak egiten dituen sektore bati buruz, zaintzara de- dikatzen den sektore bati buruz baizik.

Azken hitzarmen honen kontura egindako greban egoiliarren familiakideen babesak lortu dute grebalariek.

Historian lehen aldiz egoiliarren senideek osatutako elkarte bat sortu zen 2016an. Beren senideak ondo egotea nahi dute, baina era berean nabarmen babesten dituzte langileak. Hamarkada batzuk atzera jotzen badugu, duela ez hainbeste urte, langile hauek iraindu egiten zituzten lanuzte, manifestazio eta elkarretaratzeetan. Krudelak edo kriminalak deitu diete. Pertsona zaurgarriak abandonatzea leporatzen zieten, eta lan kalitaterik gabe zaharrak ez daudela ondo zainduta erantzun langileek. Hori gaur arte ez da barnerratu.

Borrokaaren izaera feministak sindikatuan eragina izan duela diozu. Nola eragin du sindikatuan bertan eta sindikalgintzan?

ELAko kide batek esaten zidan greba hau eta gero sindikatuari deitzeko modua aldatu, eta feminista hitza gehitu diotela. Horrek asko esan nahi du. Adierazi didatenagatik, ELAk bide hori irekia zeukan. Ez alferrik, beste sektore feminizatuekin ere lana egiten baitu, sindikatuko afiliatuen %45 emakumeak baitira. Sindikatua adjektibo hori hartzen zebilen, baina nik uste dut greba honetan eman dela leherketa.

Sindikalismoari dagokionez galderak baino ezin ditzaket luzatu. Sindikalismo eredu aldatuko ote den, adibidez. Ohi-tuak gaude sektore maskulinizatuak eta horien arazoak ikustera, baina egoitzetako grebarekin 378 egunetan emakumeak ikusi ditugu kalean, gizonak bezala beren eskubideen alde borrokan.

Eta ez dira bakarrik, beste asko ikusten ari gara azken bolada honetan. Ez da kasualitatea asko zaintzarekin lotutako sektoreak izatea.

Beste sektore feminizatuak aipatu dituzula, nola esango zenuke eragin duela grebak hauengan?

Solaskideek kontatu didatenez, beste sektoreetako emakumeak gerturatu izan zaizkie, “zuek egin baduzue guk zergatik ez” esanez sarri. Inbidia hitza ere entzun omen dute, ikusita zer egiteko gai izan diren. Gero horrek zer eman dezakeen ikusteko dago.

Amaitu gabeko borroka bat da jaso duzuna, hitzarmena 2020ra artekoa baita. Nola ikusten duzu honen etorkizuna?

Hitzarmenak berritu egiten direnez, grebalariek gorpilaren hurrengo bueltan sartzen ohituta daudela esango nuke. Badakite beste bat etorriko dela, nahiz eta ez jakin zer gertatuko den, gatazkarik egongo den edo asko borrokatu beharreko hitzarmen bat izango den. Honelako greba bat aurrera eramatea oso gogorra eta zaila dela onartzen dute, baina berriz egin behar izatera, oso garbi daukate egin egingo dutela. Ez dut atzera egingo lukeen inor elkarritzeta-tu. Orain atseden hartzeko garaia zela adierazi zidaten, baina nik gogotsu ikusten ditut. Dena den, goizegi da jakiteko zehazki zein egoeratan egongo diren. ●



Bilbo Hiria irratiak lizentziarik gabe segituko du

Patxi López lehendakari zuen EAeko Gobernuak irrati-lizentziak esleitzeko lehiaketa abiatu ostean, bertan behera utzi zuen. Irregularitasun zantzuak ziren tarteko. Zazpi urte geroago, Iñigo Urkulluren Gobernuak gaiari heldu dio: hamazazpi lizentzia esleitu ditu behin betiko. Gaztelania hutsezko proiektuak nagusitu dira, eta Bilbo Hiria irratiak, euskara hutsean ari den irratiak, lizentziarik gabe geratu da. Euskara hutsezko bi proiektuak zuten lizentzia lortzeko aukera eta Naiz irratiak baino ez du lortu.

TESTUA | GORKA PEÑAGARIKANO
ARGAZKIAK | ARITZ LOIOLA

2 urte daramatza Bilbo Hiria irratiak Bizkaiko hiriburuan euskarari hauspoa ematen; Kafe Antzokiaren ganbaratik, Bilbo inguruko euskal komunitatearengana iristen. Bilboko eta Bilbora euskal irrati bakarra da. Hirian euskara loratzeko asmoz lanean diharduen Zenbat Gara elkarteko kide da hedabide hau, eta Bilbon euskarak bere tokia duela eta izaten jarraituko duela aldarrikatzen dute. Ez dira baina, betiko garai onenak. Otsailaren azken astean heldutako berria ez dute esker onez hartu. Kolpe latza izan da, lizentziarik gabe geratuko direla jakitea. Irratiaren jarraipena airean dagoen arren, irribarretsu hartu gaituzte Ane Zabalak eta Jabi Zabalak. Argi dute proiektuak zutik jarraituko duela nola edo hala, komunitateari ekarpenak eginez, botere publikoek bizkarra ematen badiete ere. Arrazoi sinple batengatik: Bilboko euskaltzaleek merezi dutelako.

2012tik dator kontu hau. PSOEn Gobernuak EAeko irrati-lizentzien banaketarako lehiaketa publikoa deitu zuen. 34 frekuentzia banatuko ziren, sei urte lehenago Espainiar Estatuak irratiaren hedapena arautzen zuen dekretuak hala adierazita. Bilbon banatuko ziren

frekuentzia modulatuetatik lautara aurkeztu zen Bilbo Hiria, eta horietatik bi, lehiaketaren oinarriek zehazten zuten, euskara hutsezko proiektuentzat izango ziren. Puntuazioa emateko orduan bidegabekeria salaketak eta irregularitasunak egon ziren, eta PSOEn

Oinarriek zioten gutxienez euskara hutsezko bi proiekturi esleituiko zitzaizela lizentzia, baina Naiz irratiari baino ez zaio eman. Bigarren lizentzia nori edo zertara bideratu den galdetu dute Bilbo Hiria irratiak langileek

Gobernuak, legegintzaldiaren azkenetan zela, guztia bertan behera utzi zuen. Dena den, ordurako behin-behineko 34 esleipenak eginak zituen. Horietatik 17k helegitea aurkeztu zuten, lehiaketa ezerezean geratu izana salatuz –Auzitegi Gorenera iritsi ziren zenbait kasu–. Prozesu judizial luzeen ostean, helegi-

tea aurkeztutako guztiei arrazoia eman zieten, eta lizentzia berme guztiekin eskuratu zuten. Orain, otsailaren azken astean publiko egin den dekretuan, behin-behinean esleituak izan eta helegitea aurkeztu ez zuten horiei aitortu zaie esleipena. Hortaz, Patxi Lópezen Gobernuak atzera botatakoa bere horretan berretsi du EAjren Gobernuak.

Azken 26 urteotan egindako irrati-lizentzien banaketarako lehiaketa bakarra izan da, eta tramitazio polemikoez ziprztinduta egon izana triste dela uste dute Ane eta Jabi Zabalak. Lehiaketaren berri izan zuten unetik desadostasunak azaldu zituzten. Eskakizunak bidegabeak zirela diote biek, ez zegoela irrati txiki eta komunitarioen neurrira egina. Euskara atzean utzita, proiektuaren alde komertziala zen baloratzen zena Jabi Zabalaren esanetan: “Ez zen inolaz ere kontuan hartzen alderdi sozial eta kulturala; proiektua beraiek nahi zutenaren neurrikoa izan behar zen”. Ordurako uhinetan aritzea ere ez zen kontuan hartzen, hots, berdin zuen egitasmoak urteak zeramatzan emititzen edo ideia soila besterik ez zen. Hala ere, lizentzia lortzeko nahiak eta beharrak bultzatuta, lehiaketan par-





ANE ZABALA (ESKUINEKO ARGAZKIAN): “LEHIAKETA BERTAN BEHERA GERATU ZENEZ, PENTSATU GENUEN HORREK ESAN NAHI ZUELA BESTELAKO PARAMETROAK ETA EZAUGARRIAK IZANGO ZITUEN GANORAZKO LIZENTZIA BANAKETA MODU BAT JARRIKO ZUTELA MARTXAN”.

te hartu zuen Bilbo Hiriak, teknikoki eta komertzialki egitasmo garatua aurkeztuz.

Irregularitasunak irregularitasun, jarduneko gobernuak irrati-lizentzien gaia bertan behera uzteko erabakia hartu zuen. Gobernu aldaketarekin, itxaropentsu, oinarri bidezkoak eta zilegiak izango zituen beste lehiaketa bat egin zitekeela pentsatzen zuten irrati langileek. Hala dio Ane Zabalak: “Lehiaketa bertan behera geratu zenez, pentsatu genuen horrek esan nahi zuela bestelako parametroak eta ezaugarriak izango zituen ganorazko lizentzia banaketa modu bat jarriko zutela martxan”.

NON DU FOKUA EUSKO JAURLARITZAK?

Ezin da aurreikusi noiz izan daitekeen datorren irrati-lizentzien lehiaketa publikoa, 26 urte igaro baitira azken bien artean. Horrek Bilbo Hiria irratia jarrapena mahai gainean jartzen du Jabi Zabalaren ustez: “Orain daukagun seinalea ez da nahi bezain ona, eta lizentziarik gabe ezin dugu hobetu. Potentzia hobetu eta berrikuntzak egiteko komeni da lizentzia edukitzea arazoak ekiditeko. Lege barruan egonda dena da abantaila”.

Bilbo Hiria irratia Zenbat Gara elkarrean ditu oinak, eta horrek bizirauteko arnasa ematen dio momentuz. Dirulaguntzetatik sostengatzea ere ezinezkoa da, haietara aurkezteko eskakizunetako bat baita lizentzia edukitzea. Hain zuzen, Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzak jaso ahal izateko beharrezkoa da Eusko Jaurlaritzak soilik eman dezakeen lizentzia edukitzea.

Dena den, arazoa are orokorragoa da. Irratia piztu, frekuentzia sintonizatu eta zenbat maiztasunetan entzun daiteke euskara, erakunde publikoek finantzatutako hedabideez gain? Irrati-lizentzien lehiaketaren oinarriek zioten gutxienez euskara hutsezko bi proiekturi esleituiko zitzaizela lizentzia, baina Naiz irratia baino ez zaio eman. Bigarren lizentzia nori edo zertara bideratu den galdetu dute Jabi eta Ane Zabalak.

“Botere publikoek gainerako hedabide handiak baimentzen dituzten heinean, gurea ere baimentzea nahi dugu”, dio Jabi Zabalak. Arazoa, Ane Zabalaren esanetan,

botere publikoek bertako hedabideen ekarpeni garrantzia ematerakoan dago: “Guk ekarpen kultural eta soziala egiten diogu komunitateari, eta Bilboko euskal hiztunen komunitatearengana hurbiltzen gara. Hitzarmen anitzak ditugu hainbat eragilarekin, liburu bat ere argitaratu dugu... Euskaldungoari egindako ekarpena da gurea, eta komunitateak sentitu behar du injustizia dela botere publikoek babesik ez ematea”.

Publiko guztiarentzat eskuragarri izan behar lukeela dio Jabi Zabalak: “Diala eremu publikoa izanik, bidegabea da he-

“Ez zen inolaz ere kontuan hartzen alderdi sozial eta kulturala; proiektua beraiek nahi zutenaren neurrikoa izan behar zen”

JABI ZABALA, BILBO HIRIA IRRATI LANGILEA

rritar ororentzat eskuragarri ez egotea”. Irekia izateak eduki aldetik proiektuen aniztasuna bultzatu behar lukeela, eta halakorik ez dela bermatzen uste dute; ez behintzat, proiektuak lehiaketara aurkezteko Eusko Jaurlaritzak ezarritakoaren neurrikoa izan behar badu. ●

PONTO NOVOKO NEKAZARI TXIKI ETA LURGABEAK

Ura eskubide izateko borrokan

Brasilek bizi duen faxismoaren aurrean herri mugimenduen lehenengo helburua bizirautea da, mugimendu bezala eta pertsona bezala. Koiuntura honetan, garaipenen berri ematea oso garrantzitsua da. Bahiako Ponto Novo herrian lau okupazio izan dira azken hamar urteetan.

AZPIEGITURAK. TERRA NOSSAKO
BIZTANLEAK SUKALDEA ERAIKITZEN.

TESTUA ETA ARGAZKIAK | **ESTI REDONDO**

Ponto Novo Brasilgo Bahia Estatuko iparraldean dagoen herria da eta *sertão* izeneko ekosisteman kokatuta dago. Basamortutik gertu dagoen bioma honetan urtean 300 eta 500mm inguru botatzen du abendu/urtarrila eta uztaila artean; 2008tik 2013ra lehorten handia egon zen. Garai horietan ereiten da, zerura begira beti, ea jaiotzeko beste bustitzen duen. Mandioka, indabak eta artoa landatzen dute gehienbat; behiak, eta batez ere, ahuntzak hazten dituzte, eta zonaldeko fruitu arbolak dituzte: umbua, anarkardoa, licurí...

Ur falta dagoenean, ura da bizitzaren ardatza: mugimenduen borroka, estatua-ren proiektuen izaera, agro-negozioarekin talka... dena uraren inguruan. Azken urteetan Ponto Novo borroka horren isla bihurtu da. Bahiako Estatuak ureztatze plana jarri zuen martxan 2000. urtetik aurrera; garai hartan eskuina zegoen gobernuan eta urtegi bati lotutako proiektua abiatu zuten. Hektarea eta ur piloa

monolaborantzarako. Lur batzuk ekoizle ertainen artean banatu bazituzten ere, gehienak enpresa baten esku geratu ziren: Sitio Barreras banana ekoizlearen esku. Enpresa instalatu zen lurretatik 450 nekazari txiki bota zituzten.

LEHENENGO OKUPAZIOAK

Movimento dos Pequenos Agricultores-ek (MPA) 2008an ureztatze poligonoaren barruan zeuden lur batzuk okupatu zituen. Hogeita hamar familia sartu ziren eta lehenengo lastoz, gero adobe bez, beraien etxebizitzak eraiki zituzten. Handik pasatzen zen kanaliz baliatuta, ekoizpen kolektiboari ekin zioten. Poligonoaren barruan nekazari txikientzat lekua egotea aldarrikatzen zuten; bertan bizi eta ekoiztu nahi zuten. Horrela sortu zen Terra Nossa.

Borroka garaia izan zen, Sitio Barreras enpresa hainbatetan okupatu zuten, errepidea moztu, hegazkinez botatzen zuten pozoia kontra babestu. Libu-

rutegia ere eraiki zuten, edateko ura lortu... baina 2011n handik bota zituzten. Ordurako Bahiako Estatu eta poligonoaren proiektua Partido dos Trabalhadoresen (PT) esku zeuden, baina negoziaketek ez zuten aurrera egin. PT-rentzat ere ureztatze poligonoak agonegoziorako behar zuen izan: monolaborantza eta pozoiez jositako zonaldea sustatu zuen langileen alderdiak.

Beraien etxe eta espazio kolektiboak suntsituta ikusi arren, familiek ez zuten etsi eta traste guztiak hartuta, poligono barruan hutsik zegoen pabiloi batera jo zuten. Han pasatu zituzten hurrengo urteak; 2018ra arte hogeita hamar familia bizi izan dira elkarrekin.

Borroka hura ez zen alferrikakoa izan: hamar urtetako gabezien ostean, Bahiako Estatuak alde batetik, eta INCRAk bestetik (Instituto Nacional de Colonização e Reforma Agraria) beraien aldarrikapena aintzat hartu zuen. Behin lurra lortuta, etxeak lortzea da hurrengo erronka, eta





oraindik ere badira beste talka batzuk, ekoizpenerako laguntzak kasu.

GARAI BERRIETAN, ALIANTZAK

Lurrak lortuko zituztela jakinda, MSTk (Movimento dos Trabalhadores Sem Terra) Mandela izeneko eremua sortu zuen poligonoaren beste zati batean, he-

rri mugimendu eta lurgabeentzat. Gaur egun Terra Nossan etxeak eraikitzea lortu dute, familia bakoitzak sei hektarea dauzka poligonotik kanpo eta beste bost poligono barruan; etxe guztietan euri ura biltzeko sistema dute. Mandela, berriz, poligono barruan dago osoki eta lurren demarkazio prozesuan daude oraindik;

halere, sortuko duten *agrovila* edo etxaldea nahiko egituratuta dago.

Baina borrokak aurrera jarraitzen du. 2017an urtegia ur gabe geratu zen eta Sitio Barreras enpresak lekua utzi zuen; gauzak bildu eta alde egin zuen. Hori aprobetxatuta MST eta MPA batu eta enpresako egoitzak okupatzea erabaki zuten. Momentu honetan kanpamendua altxa dute toki horretan, bi mugimenduen koordinaziopean. União izena jarri diote gunee berriari eta beste 30 familia daude han –dagoeneko ekoizten hasi dira, estatuarekin negoziatu ondoren–. Inguruko nekazariekin ere ari dira hitz egiten, familia gehiago bertaratzeko, jende gehiagori jaten emateko lur kopuru adina badagoelako. Aurten lurrak eskuratu eta laster etxeak eraikitzen hastea espero dute, baina oraindik ez dago argi zer gertatuko den.

URA GUZTIENTZAT

Bahiako Estatua ureztatze poligonoan inbertsioak egiten ari da, bi urtegi elkar-tu nahi ditu kanal baten bidez, berriro ur gabe ez geratzeko. Kanal hori Terra Nossatik eta beste hainbat komunitetatik pasatu arren, ez dago aurreikusitako bizilagun horiek ur-sarera sarbidea izango dutenik; eta ekoizpenerako ere ez dute ura bermatuta. Terra Nossa barruan “uraren kanpamendua” antolatu dute. Bertan sei hilabete daramate, guztientzat ura bermatu arte kanala ez dela bertatik pasako diote.

MPAk eta MSTk beraz, uraren eskubi-dearen aldeko defentsan erreferentzia bihurtu dute Ponto Novo: ureztatze poligonoaren logika zalantzan jarri dute, PTko gobernua negoziatzera bultzatu, hirurogei familiek lurra lortu dute, beste hogeita hamar bidean dira eta laster beraiek eta beste nekazari komunitate batzuek etxeetan ura izango dute.



50 urte ura botilaratzen

Beteluren ur minerala inguru natural batean sortzen da, Aralar mendilerroaren oinean. Kalitate handikoa eta garbia izanik, tratamendurik gabe ontziratzen da bere propietateak mantentzeko, diuretikoa baita, digestio onekoa eta lasaigarria.

Ur honek dituen osagai eta propietateak bere horretan mantentzen dira, eta bereak dituen mineralai esker edan erraza da, zapore berezi eta atseginekoa.

Donostia-Iruñea errepidea • 31890 Betelu (Nafarroa)

Tel.: 948 513 157 • www.betelu.com







BORROKA GARAIA. 2008-AN OKUPATU ZUTEN LEHEN ALDIZ PONTO NOVOKO UREZTATZE POLIGONOA; ERREPIDEAK MOZTU ETA HEGAZKINETATIK JAURTITAKO POZOITIK BABESTU BEHARREKO URTEAK IZAN ZIREN HAIEK.

NEKAZAL ERREFORMA ZALANTZAN BOLSONAROREKIN

Brasileko legediak lurrak helburu soziala bete behar duela esaten du. Beraz, lur bat landu gabe dagoenean edota bertako ekoizpenak ingurugiroari kalte egiten dionean, nekazal erreformarako "eskatu" daiteke. Hori izan da MSTk eta lur banaketaren aldeko beste hainbat mugimenduk azken 35 urteetan erabili izan duten estrategia. Lurra okupatu, INCRAri helburu sozialik betetzen ez duela esan, eta horrela banatzera behartu. Lur hauek batzuetan publikoak dira eta beste hainbatetan pribatuak, bigarren kasuan INCRAk lurrak erosten ditu banatu aurretik.

PTko gobernuekin nekazal erreforma eskuineko gobernuekin baino geldoa-

goa izan zen, lur gutxiago banatu zen eta familia gutxiagok eskuratu zuen lurra. Hala ere prozesuak aurrera jarraitu zuen eta nekazal erreformaren bidetik lurra lortu zuten familien bizi baldintzak hobetu ziren: etxebizitza programak, ura eskuratu, argindarra, ekoizpen proiektuak, ikasteko laguntzak...

Bolsonarok bere kanpainan argi utzi zuen MST etsai nagusietakoa izango dela. MTST (Movimento dos Trabalhadores Sem Teto) etxegabeen mugimendua, bere aldetik, hiri erreforma aldarrikatzen du eta okupazioak egitea gune urbanoetan. Mugimendu horiek "terrorista" gisa izendatzen saiatuko dela dio presidente berriak. Eta lehen eraso larria jada gertatu da.

Bolsonaro garaiko lehen egunetan INCRA geraraztea eta azken hamar urte-tako prozesuak berriz begiratzea erabaki zuen gobernuak. Hala, lurra okupatzen ari diren milaka familien egoerak okerrera egin du, ezinezkoa baita lurrak eskuratzeko INCRA geratuta dagoen bitartean, eta kanporatze arriskua handitzen ari da. Gainera, azken hamar urteetan lurrak eskuratu dituztenek ere arazoak izan ditzakete.

Leihu txiki bat zabalik dago ordea: INCRA gobernu federalaren esku dagoen instituzioa da. Estatuak badute beraien lurretan erabakiak hartzeko eskumena, Ponto Novoko ureztatze poligonoa Bahiako Estatuaren lurretan kokatua dagoenez, negoziaketa Bahiarekin da eta ez Brasiliarekin. ●




Ez dago B planetarik

Zaindu ura, eraiki dezagun etorkizuna.



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
 Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia
www.consorcioaguas.eus

Auto elektrikoaren etsaiak



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Aberdeen (Eskozia), 1837. Robert Davidson kimikariak lehen auto elektrikotzat jotzen dena asmatu zuen, lehenago egin ziren saiakerak gauzatuz: Ányos Jedlik hungariarrak, esaterako, motor elektriko bat osatu eta eskala txikiko auto bati jarri zion 1828an.

1841ean Davidsonen prototipoa hobetu zuen: 6 km/h abiadura eta 2,4 km-ko autonomia zuen autoa aurkeztu zuen. Ezaugarri horiek oso mugatuak ziren autoaren erabilera zabaltzeko. Hala ere, Glasgow eta Edinburgheko trenbideko langileek mehatxutza jo zuten berrikuntza hura eta ibilgailua suntsitu zuten.

1859an Gaston Planté fisikari frantziarrak berriz kargatzeko bateria asmatu zuen eta beste frantziar batek, Camille Alphonse Faurek, asko handitu zuen bateria horien ahalmena 1881ean. Hori guztiari esker, 1888an Andreas Flockenek diseinaturako autoaren ekoizpen industrialia abiatu zen.

Mendea amaitu baino lehen, taxi elektriko konpainiak sortu ziren Londres, Paris, Berlin eta New Yorken. Beste abantaila askoren artean, auto elektrikoek zaldi-orgek hartzen zuten tokiaren erdia soilik behar zuten, eta orga gidariekin taxi berrien aurkako kanpaina zitala abiatu zuten Londresen, London Electric Cab Company desagerrarazteraino.

Partikularren merkatuan auto elektrikoek arerio sotilago batekin egin zu-



PETROLIO KONPAINIEN INTERESAK IZAN DIRA AUTO ELEKTRIKOEN ETSAIK GOGORRENAK. BAINA ARERIO SOTILAGOAK ERE IZAN DITUZTE, HASIERAN "EMAKUMEENTZAKO" AUTO GISA MERKATURATU BAITZIREN.

ten topo: sexismoa. Garbiagoak, gidatzen errazagoak, isilagoak, distantzia laburretarako egokiagoak... zirenez, publikitateak nagusiki emakumeak izan zituen jomuga. Baina erosle gehienak gizonezkoak ziren eta gutxik egin zuten "neskentzako" autoaren aldeko hautua.

Auto elektrikoaren etsairik handiena petrolio izan da. Petrolio-erreserba handiak aurkituta, erregaiaren prezioak nabarmen egin zuen behera. 1908an Henry Fordek Ford-T modeloa merkaturatu zuen auto elektrikoaren erdi prezioan. Eta auto elektrikoarenak egin zuen.

Juan Ignacio Pérez Iglesias EHuko Kultura Zientifikoko Katedraren arduraduna-

ren aburuz "agian denboraz kanpo sortu zirelako" egin zuten porrot auto elektrikoek. Baina petrolio konpainien aurka ba al da garai onik? Askorentzat haxe da auto horiek bultzatzeko garai egokia. Jonathan Lesser energian adituak dioenez, ordea, "ez da igorpenak murrizteko irtenbidea, elektrizitate ekoizpena handitzea eskatzen duelako". Auto elektrikoak adabakiak baino ez direla eta irtenbidea mugikortasun ereduia goitik behera aldatzea dela esan nahi zuen horrekin? Pentsatzekoa da ezetz. Manhattan Institute-ko aholkularia baita Lesser. Eta ezetz asmatu nor dagoen erakunde horren atzean: Exxon petrolio enpresa ahalguztiduna. ●

Boycotty boikota egin ziotenekoa

1873an Erneko kondeak Charles Boycott ingelesa Irlandako Achill uharteko lurren administratzaile izendatu zuen. Berehala haren menpeko nekazariak Boycotten tratatu jasanezina salatu zuten eta erretoa ordaintzeaz utzi zioten. 1880rako inork ez zuen harentzako lanik egin nahi, ezta produkturik erosi edo saldu nahi ere. Boycottek Ulsterreko langile protestan-

teak lortu zituen hasieran. Baina, Irlandar Nekazarien Ligak Boycott baztertzeko aukera legala eman zien nekazariei zein bestelako zerbitzuei eta ferrokarrilak berak uko egin zion ingelesaren produktuak garraiatzeaz. Azkenean, Boycott Irlandatik egozteko lortu zuten.

The Times egunkaria 1880an bertan hasi zen "to boycott" aditza erabiltzen. ●



LESLIE WARD

LANDARE ONKOLOGIA



LIZARRARI SOILIK ERASOTZEN DIO *ACERIA FRAXINIVORA* AKARO IKUSIEZINAK. IZERDIA ZURRUPATZEN DU, ETA ONDORIOZ ZUHAITZAK KOSKOR BAT SORTZEN DU. DEFORMAZIO HORI EGURKARA ETA GOGORRA DA, LIZARRAREN TUMORE BAT.



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

aztik jasotako azken sagarrak jaten ari gara etxean, *Malus domestica*. Sasoi betean daudenak azaloreak dira, *Brassica oleracea* var. *botrytis*. Lizarra, *Fraxinus excelsior*, hortxe dago, kieto, segurtantzari; egun luzeagoen zain loratzeko.

Gure atari aurrean lizar dotore bat bizi da. Ez da handia, baina lur tontor baten gainean dagoenez plantako azaltzen da. Azken urte hauetan, negua soildua igaro beharrean, adarrak apaingarriz jantzita izaten ditu. Apaingarri horiek urtetik urtera ugariagoak dira. Hasieran berdeak dira, gero gorri-marroiak eta atzenean belztu egiten dira. Orain neguan ikusgarriak dira. Aspaldi beraiei buruz idatzi behar nizuela pentsatua nuen, baina beti atzera, atzera... Baso

berri bat landatzen ari den lagun batek piztu nau. *Quercus robur* haritz landare batean topatutako kuku-sagar baten argazkia bidali dit zer ote den galdezka. Nik zuzenean 2010eko martxoaren 7ko 2.221. ARGIAN argitaratutako artikulua- ren lotura bidali diot.

Lizarrarena haritzarenaren tanke- rakoa da. Honena akaro bat da, *Aceria fraxinivora*. Akaroak ttikiak dira, itxuraz begirik ez dute, eta lizarrari soilik eraso- tzen dio. Gehienetan lore ireki berriari, baina baita kimuei, hostoei, adartxoei... Akaro ikusiezinak izerdia zurrupatzen du, eta ondorioz zuhaitzak koskor bat sortzen du. Deformazio hori egurkara eta gogorra da. Bere itxura azalorearena da, Herbehereetan eta Frantzia azalore

-sagarra esaten diote. Wikipedian oraindik izendatu gabe dagoela baliatuz, nik bi izen proposatuko nituzke: lizar-sagarra eta lizar-azalorea.

Azken beltzean lizarraren tumore bat da. Orain lurrera erortzen ari dira, akaroz josita, noski. Eta laster loreak irekitzen hasten denean, berriro erasoko diote. Agi denean, akaroak emeak dira, eta arrautzak ernaldu beharrik gabe ugaltzen dira, arraren beharrik ez dute. Zorri batzuk tankera bertsuan ugaltzen dira. Ugalketa eraginkorragoa da.

Gero eta gehiago ezagutzen ditugu horrelako tumore, hantura, lupu edo deformazioak. Zenbaitek espezializatzeko aukera ere aurkitu dute bide horretatik. Landare onkologia deitzen zaio. ●



“OREXA BIZIRIK” PROIEKTUA

TXIKITIK HERRI BIZITZARI EUSTEN



GARAZI
ZABALETA

Gipuzkoako herririk txikienetakoa da Oresa, 122 biztanlerekin. Azken hilabeteetan, hainbat sari jaso dituzte bertako herritar, elkarte eta erakundeek, landa inguruko herri bizitza sustatzen duten proiektuengatik: Oihan Txiki kooperatibak *World Cheese Awards*en urrezko domina lortu zuen abenduan, eta urtarri-lean berriz, Gipuzkoako Landa Garapen Elkartek Oresa Bizirik proiektuari eman diote Landaola saria. Urtetan herria bizirik mantentzeko egin duten lanari aitortza izan da azken sari hori.

HERRITARREN AHALEGINA

Iker Karrera Tolomendiko kideak Tolosaldeko Ataria irradian azaldu zuenez, erakunde publikoen ataleko Landaola saria Oresa Bizirik proiektuari ematea erabaki zuten, herri bezala urtetan egiten ari diren ahalegina azpimarratzeko: “Urtero-urtero eta legealdiz legealdi, proiektu batekin edo bestearekin herri bizia izateko saiakera horretan jarraitzen dute tinko”. Herri txikia izanik, denek batera egiten duten lana azpimarratu zuen Karrerak. Belau-naldi ezberdinen arteko elkarlanetik eta herritarren ahalegin kolektibotik sortu da proiektua, haren hitzetan.

Oihan Txiki kooperatibaren egitasmoa, etxebizitza garapenarena, herrian oinarritako azpiegiturak bermatzeko apustua... Oresa biziberritzeko abiatu dituz-

ten ekimenak bost alorretan banatzen dituzte: ingurumena, energia, komunikazioa, eta herritarren arteko soka lana egiten duten kooperatiba eta ostatua. Azken lorpena izan da ostatua berriz irekitzea. “Abenduan egin du ostatuak urtebete irekita. Saiatu gara horri ere beste buelta bat ematen: ez da soilik ostalaritzari eskainitako leku bat, herritarron biltoki eta gurera hurbiltzen direnentsako harrera gune ere bada”, zioen Eneko Mairoz alkateak Euskadi Irratiko *Landaberri* saioan. Bestalde, ostatua bertako produktuen erreferente gune izatea ere nahi dute.

URTE ASKOTAKO IBILBIDEA

Oresa Bizirik izena duela gutxi eman bazaio ere, Mairoz alkateak azpimarratu zuen proiektu horren hastapenak duela ia hogeita hamar urte eman zirela: “Orduan jada hasi ziren gazteak herrian gelditzeko zer egin ote zitekeen pentsatzen. Ikusi zuten garrantzitsua zela lanerako aukera sortzea, eta kooperatiba abiatu zuten orduan”. Hasiera hartan bezala, egungo proiektuan ere gazteak herrian geratzea eta herri bizia egitea dute erronka. “Oresa Bizirik herri proiektua da, ezin duelako Udalaren proiektu bat izan, herri guztiak partekatua behar du”. Horixe izan da, Maioren ustez, Landaola sariarekin saritu nahi izan dieten benetako balioa. ●

EUSKAL HERRIKO AGENDA

MARTXOAK 29

GETXO

Bilboko itsasadarrean ibilaldia itsasontziz. 16:00etan Bilboko Itsasadarra Itsas Museotik abiatuta.



IZENA EMATEKO:

promocion@puente-colgante.com
94 48 01 012

MARTXOAK 29

GASTEIZ

Etxeko ogi integrala ama-orearekin egiteko tailerra. 17:00etan Mamia-n (Diaz de Olano margolaria kalea, 11-13).

MARTXOAK 29

DONOSTIA

Ostiral astronomikoa. 19:30ean Aranzadi Zientzia Elkartean (Zorroagagaina 11).

MARTXOAK 30

BILBO

9:00etan Sanfran ortura txangoa.

MARTXOAK 30

SANTURTZI

Itsas Museoa, Santurtziko itsas historiaren gunera sarbidea doan 10:00etatik 19:00etara. 11:00etan, Agurtza atunontzira ate-irekiak.



IZENA EMATEKO:

turismo@santurtzi.net / 94 48 39 494

MARTXOAK 31

BUSTURIA

Goi estuarioa bizikletan. 11:00etan Urdaibaiko Ekoetxean. Bakoitzak eraman bere bizikleta. Tarifa: 3 euro.

MARTXOAK 31

KORTEZUBI

Santimamiñeko kobazuloak, ate irekiak. 11:30ean.



IZENA EMATEKO:

santimamine@bizkaia.eus / 94 46 51 657

1926ko Jorrraila



KOLDO IZAGIRRE

Ebanjelioetan ez omen da ageri Jesukristo zein aldetarik sastakatu zuten. Ikonografian, berriz, artista batzuek eskuinaldean kokatzen omen dute zauria, eta bestetuek ezker aldean. Horra publikoaren interesa biltzeko debate bat, Larrekok, Nafarroako Ospitaleko zirujau eta zuzendari gisa, bideratu ez ezik argitu ere egin ziguna mediku frogak eskuan: dagoen aldean egonez, bihotza ezkerretik zauritu ziotela uste genezake, baina eskuin saihestetik sartu omen zen Jesukristoren bihotza urratu zuen lantza.

Gurutzean josirik ez gaudenoi, eta burdina zorrotzik gabe, guk geuk egiten ditugun ametsetarik sastakatzen gaituzte, eztizko hitzetarik hartzen dugu min, edo egia entzun behar izatetik, edo gezurra onartu behar izatetik, edo bihotzak berak daukan oroimen handiaren erruz. Gertatzen baita geure bihotzaren jabe ez izatea osoki, giharrik delikatuena zauritzen digute, ardura, maite gaituztela ziur dakigunek ere.

Eta gu, bihotza aneika arranguraz minberatua daukagunok, gure eginetarik, gure esanetarik, gure behakoetarik, gure irrietarik heldu ohi gara, Alemaniak ikasitako zirujauak bezain trebe, barnebidetuek ezkutuenetan zehar urragarri, inoren bihotzera. ●

EUSKARA BATUA

Ehun urteko bidelaguna



Isaac Lopez Mendizabal idazlea Euskaltzaindiarekin bildu zenekoa, 1966ko uztailaren. Argazkia: Argiaren artxiboa.

MIREN OSA GALDONA

Espainiako Gobernuak presidentek euskararen akademiara egindako bisitak eraman zuen Euskaltzaindia aurreko asteetan hedabideetako lehen lerroetara. Pedro Sánchez izan da Euskaltzaindia bisitatu duen Espainiako lehen estatu burua erakundeak martxan diharduen 100 urteetan. Aitzakia franko izango zituzten aurreko agintariak hitzorduari muzin egiteko; ordea, "denbora falta" ez dirudi azalpenik egokiena ausentzia justifikatzeko.

100 urte bete ditu aurten Euskaltzaindiak. Ibilbide oparo bezain malkartsua izan dela pentsa daiteke, izan ere, maiz jarri ohi da fokua Bilboko Plaza Barriko egoitzaren teilatupean. Euskara batuak gaur egun ere gudu-zelai izaten jarraitzen du, eta tartean badira duela 50 urteko hari-mutur berebere tiraka eztabai-datzea zaletasun bilakatu zaienak.

H-a euskarazko idazkeran txertatzea orduko hartan Euskaltzaindiak proposatu zuen berrikuntzetako bat zen, hainbat euskalkietan idatzi ez ezik, ahoskeran ere erabiltzen zela argudiatuta. *Zeruko Argia* hasieratik agertu zen euskara batzearen alde, astekarian idazten zuten

guztiak iritzi berekoak izan ez arren.

Miren Jone Azurza zen 1968ko *Zeruko Argiaren* zuzendaria, eta berak ere ez zekien H-ari nondik heldu, baina argi zuen euskararen akademiak hala egitea bazioen ez zela alferrikako aholkua izango. "Euskaltzaindiako buruek hori bazioten (H-a ezarri behar zela), *Zeruko Argiak* ere bai. Garai hartan jauzi handia egin zen hizkuntzaren garapenean: historiaurretik euskara nahiko normalizatu batera iragan ginen", zioen 2009an ARGIAi eskainitako elkarrizketan, euskara batua onartuz eta Euskaltzaindia babestuz.

Elkarren bidelagun izan dira bata bestearen jardunean: alde teoriko-akademikoa eskainiz Euskaltzaindia, alde praktikoko-komunikatiboa emanez ARGIA. Euskaltzaindia da lehentasunezko iturria ARGIA idazterakoan, bai hitzak nola idatzi, bai gramatika arauak eta gomendioak, bai toponimian: Euskal Herriko herriak nola idatzi, bai atzerriko herrialdeak... Puntu honetara iritsita, onartuko ote digute elkarri #mendurkide deitzea? Erantzunaren zain geratuko gara. ●

MAITANE GARTZIANDIA

Diseinuaren tripak



ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Sergio diseinatzaileari agur esan genion pasa den urrian, baina ez diogu orain arte inori ongi etorri-rik egin, eta aldizkariaren diseinuak aurrera jarraitu du. Aurrera jarraitu bakkarik ez, 100. urteurreneko ale bereziarekin batera mantxeta aldatu zuen ARGIAK (Gartziandiaren lana da hau), diseinu aldaketa egin du astekariak, eta baita *Larrun* hilabetekari monografikoak ere. Onintza Iruretak idatzitako *Berdea da more berria* liburuaren azala ere Gartziandiak egin zuen. ARGIAren mendeurrena ospatzeko ekitaldien kartelak ere bai... eta laster ekingo dio Gartziandiak urtean behin argitaratzen dugun *Gakoak* diseinuz berritzeari. Ez dizuet kontatuko zuzendariaren ipuin iguala, lasai, ARGIAk horizontaltasunaren izenean ez du diseinatzaile figura ezabatuko. Zuzendaririk gabe tira, baina zer litzateke astekariaren azala diseinatzailearik gabe? Langile berria aurkezttera dator, Maitane Gartziandia.

Indartsu hasi da Gartziandia. Indartsu hastera tokatu zaio. Azaroan ekin zion ARGIAko lantaldean bere lanari, eta deskantsurako tarte gutxi izan du. Gustura hartu du postua, ordea, eta pozik dago hilabete hauetan egindakoarekin: "Ale bereziak lan handia ekarri zuen eta horri heldu nion iritsi bezain azkar. Hasiera mugitu xamarra izan zen, baina oso gustura nago". Orain "lasaixeago" dabilela onartu digu, eta pixkanaka ikasi du

astero argitaratzen den aldizkari baten diseinuak daraman dinamika.

KATE-LANA

Astekaria makinetara bidali arteko lan osoa katea da. Kazetariak egiten du lan bat, argazkilariak bestea, diseinatzaileari heltzen zaio hori guztia, publicitateko ere beren lana egin eta aldizkariaren bere lekua eskatzen dute, eta hori da Maitane Gartziandiak antolatutako behar izaten duena. Ez du bakarrik egiten. Astelehenetako erredakzio bileran, taldean aukeratzen dira asteko gaiak, artikuluen lekuak, azaleko gaia... Eta hor, noski, diseinatzaileak ere bere hitza du. "Ostiral eta astelehenak potenteak izaten dira", azaldu dit Gartziandiak. Ostiraletan ixten da normalean astekaria, orduan hartzen baitu inprentarako bidea; baina asteko gaia asteburuan tokatu bada, lanen bat egiteko geratu bada, astelehenak ere baliatu ohi ditu.

"Aste normalak oraintxe hasi zaizkigu", kontatu digu barrez. "Orain arte ale berezia zela, presoen manifestazioa gero, Argia Sariak segidan, Martxoak 8... aste berezi xamarra izan dira", dio. Bada, Maitane, jakin beharra daukazu, Argiako hauekin, aste normalak gutxi! Beti bada zerbait etxe honetan.

Lehen ere diseinu grafikoan eta maketazioan ibilia, sekula ez astekari baten martxan, baina beti dago lehen aldiren bat. Urte askotarako, Maitane. ●



ARGIA

1919 · 2019

EKITALDIAK

ZAINTZAKO LANGILEEN BORROKAK MAHAI-INGURUA

Mahaikideak: **Soraya García** (zaharren egoitzak), **Elena Vasconez** (kelly-a) eta **Arantza Arrien** (baserritarra).

📍 **Bilbo** Kafe Antzokian
🕒 **Martxoak 27, 18:30**

Manu Robles-Arangiz
Institutuarekin elkarlanean.

FELIX SARASOLA HERRI OMENALDIA

📍 **Usurbil** Frontoian
🕒 **Martxoak 31, 12:00**

Gure oroitzapenak filmaren proiektzioa 18:30ean Sutegin.

HIZKUNTZA ESKUBIDEAK, NORENAK?!

MAHAI-INGURUA

Mahaikideak:

Eneka Alvarez eta **Arkaitz Zarraga**

📍 **Arrasate** Kulturete
🕒 **Apirilak 4, 19:00**

Arrasate Euskaldun Dezagun
elkartarekin elkarlanean.

KATALUNIAKO PROZESUA ETA GARAIPENAREN IKASBIDEAK HITZALDIA

Hizlaria: **Jesús Rodríguez** (Directa)

📍 **Gasteiz** Hala Bediren lokala
🕒 **Apirilak 5, 18:30**

Hala Bedi irratiarekin elkarlanean.

AZOKA

AZOKA.ARGIA.EUS



NOLA DA "MUSUTRUK"?

Ostegunetan 10:00etan jartzen ditugu Argia Jendearentzat musutruk dauden gaiak azoka.argia.eus webgunean. Eta zozketarik gabe, bizkorren eramaten dituenarentzat dira. Ondasunak banatu ditzagun, urtean musutruk gai bat hartzea eskatzen da.

Denon esku dago Argia Komunitatea elikatzea, bakoitzak ahal duena besteen esku musutruk jarrita.

Debako Arte eskola

MITOTIK ZERBAIT BERRIA ERAIKI

Debako Arte Eskola itxi dute. 1970ean sortu zuen Jorge Oteizak bere programa kultural eta politikoa martxan jartzeko, baina ez zitzaion esperimientua ondo atera. 80ko hamarkada hasieran bigarren fase bati ekin zion, iazko abenduan udalbatzak ixtea onartu zuen arte. Arte Eskola Bizirik plataformak jardunaldi batzuk antolatu ditu martxoaren 23an, itxiera salatzeke eta aurrerantzean Arte Eskolak hartu behar lukeen norabidea birpentsatzeko.

TESTUA | **KEPA MATXAIN**
ARGAZKIAK | **DANI BLANCO**

Artea gizaki berri bat sortzeko tresna zen Jorge Oteizarentzat. Eta misio horretan, sekulako garrantzia ematen zion hezkuntzari. 50eko hamarkadarako hasi zen euskal artistak hezteko Estetika Konparatuko Zentro bat sortu nahian, baina, frankismo betean, ez zen samurra halako zerbait eraikitzeke beharrezko diru partidak eskuratzea. Azkenerako, bi hamarkadaren ostean, haizeak alde jo zion Deban. Han zegoen Jose Manuel Ostolaza “indianoaren” ondarea kudeatzen zuen elkarte, egun Kultur Elkartea deitzen diotena. Haiek emandako soseki esker –eta Debako Udalak lagunduta–, 1970ean sortu zuen Debako Arte Eskola, bere programa kultural eta politikoa martxan jartzeko tokia.

Oteizak ez zuen artearen inguruko pedagogiarik egin nahi. Kontua ez zen jendeari artea erakustea, jendea artistikoki heztea baizik. Ez zen asmo txikia: funtsean, herri bat eraberritu nahi zuen artearen hezkuntza moderno eta berri-tzaile batetik abiatuta, eta Deba hautatu zuen horretarako –edo Debak hautatu zuen bera–. Kontua da Oteizaren urte luzetako burutazioak gauzatu zirela. Esperimentuaren lehen urteetan puntako artistek eman zituzten eskolak, besteak beste, Agustin Ibarrolak, Remigio Mendiburuk, Jose Antonio Sistiagak, Jose Luis Zumetak, Koldo Azpiatzuk, Eduardo Txillidak edota Oteizak berak. Izugarritzko

eztanda sortu zuen garaiko panorama artistikoan. Hedabideek ere jarraipen zabala egin zieten bertan antolatzen zituzten ekintzei, jardunaldiei eta erakusketei. Baina egun egiten diren Oteizaren atzera-begirakoetan Debako kapituluak tokirik apenas badu, ez da kasualitatea. Ohartzeko hasi ziren fundatzaileen arteko desadostasunak eta liskarrak, izan hezkuntza planteamenduei buruzkoak, izan afera pertsonalak. Oteizak bizpahiru urteren buruan egin zuen hanka handik, eskolarekin zerikusia zuen guztia haizea hartzera bidalita. Bera izan zen berak sortutako eskolaren lehen boikotatzailea.

Oteizak alde eginda ere eskolak martxan jarraitu zuen. Ez askorako, ordea. “Orduko jendearekin hitz eginez gero, guztiek diote ahaztuta daukatela zenbat iraun zuen aro utopiko hark. Hamarkada batez luzatu zela esaten da maiz, baina Kultur Elkartearen diru-laguntzak 1977an amaitu zirenez, pentsatzekoa da eskola ordutan itxi zutela”, azaldu du Juan Luis Baroja Collet artistak. Proiektua kinka larrian zen. Eskolarena izan-

dako eraikina hutsik izan zen urtebetez, eta inprimategi bat jarri zuten gero bertan. Panorama hartan, Luis Mari Illarramendi hasi zen ekinean, arte eskolak utzitako arrastotik zerbait berria sortu nahian. Aurrez, Illarramendik zeramika kurtsoak ematen zituen Debako ikas-

tolan, eta Arte Eskolan ere aritu zen azken urteetan. Julio Caro Baroja, Eduardo Txillida edota Nestor Basterretxea izan zituen aholkulari, eta haren asmo sendoari esker ireki zituen ateak Debako Artisautza Eskolak 1983an. Lau oinarritzko ofizio erakusteari ekin zioten: zeramika, harlan-

keta eta zurlanketa, brontze fundizioa eta grabatu kalkografikoa.

Ordutik aritu da irakasle lanetan Baroja Collet eta, oroitzen duenez, urtero hogeita hamar ikasle inguruk ematen zuen izena garai haietan. Horietako bat izan zen Zuriñe Gredilla barakaldarra –1987tik 1990era–. Pintura zaletasunetik gerturatu zen, ikuspegi osatuago baten bila. Hiru urteko espezialitate bat hautatu behar eta, ordurako pintura kenduta zeukatenez, grabatua hautatu zuen. Bukatzean, aukera eman zioten hiru hilabetez beste espezialitate bat probatzeko, eta zur tailaketarekin hasi

JUAN LUIS BAROJA COLLET:
**Eskola hau ez da sekula
ofiziala izan, eta azken
urteotan etorri dira arte
munduan interesa zeukaten
langabeak eta jubilatuenak.
Oso garai polita izan da**

Debako Arte eskolaren KRONOGRAMA

1969

Arte Eskola irekitzeko lehen elkarrizketak hasten ditu Jorge Oteizak.

1970

OTSAILA: Jorge Oteizak arte eskolaren ezaugarriak zeintzuk izango diren biltzen ditu informe batean.

1970

EKAINA: Arte Eskolaren sortze-dokumentua sinatzen da.

1970-1977

Debako Arte Eskolaren lehen fasea.

1977

Arte Eskola ixten da, bertako kideen arteko desadostasunak medio.

1980-1983

Arte aplikatuen ikastaro batzuk ematen hasten dira.

1983-2018

Debako Arte Eskolaren bigarren fasea.

2018

ABENDUA: Arte Eskola ixtea erabakitzen du Debako Udalak.

Arte Eskola Bizirik plataforma biltzen hasten da, itxieraren aurrean zer egin pentsatzeko.

zen. Hura gustatuta, Eibarren jarraitu zuen ikasten, eta gero tailerra ireki zuen Deban. 20 urte pasatxo daramatza zurlanketatik bizitzeko. Gredillaren antzera, zientoka igaro dira Debatik eskolaren bigarren bizialdiak iraun duen 37 urteetan. Azken urteetan, izen emateak nabarmen jaitsi ziren, ordea. "Lehen titulak bost axola zuen, orain titulurik gabe ez zoaz inora", dio Baroja Colletek. "Eskola hau ez da sekula ofiziala izan, eta azken urteetan etorri dira arte munduan interesa zeukaten langabeak eta jubilatutak. Oso garai polita izan da".

Orain, bukatu da bigarren bizialdi hori ere. Debako Udalak eskola ixtea erabaki duenetik, egoera berezian dira Baroja Collet eta gainontzeko irakasleak. Kontratupean jarraitzen dute, baina klaserik eman gabe. Argazki goibela da egungo eskolarena: trastez betetako tailerrak geladirik, sabaiko zuloak inoren konponketen zain. Idazkariaren pauso hotsa soilik entzuten da Artzabal auzoko eraikinean, paper kontuak egitera gerturatzen baita oraindik. Gainontzean, *stand by* egoeran guztia, eta hitz oteiziar bat bertatik igaro direnen ahotan: hutsunea.

SUMINA AUKERA BIHURTU

Debarra da Nora Mugarza. Oso gaztetatik interesatu zaio arte mundua, baina Arte Eskolako afixak ikusten zituenean -hargintza edo zurgintza tailerretan izena ematera gonbidatuz- pentsatzen zuen: "Ondo dago, baina ez da niretzako". Arte Ederrak ikastera joan zen Bilbora, pinturak zaleturik. Unibertsitatean, segituan baztertu zuen pintura, beste diziplina batzuk probatzeko: argazkilaritza, bideogintza, performancea... Bartzelonan masterra eginda, arte hezkuntzan dabil azkenaldian. Iazko udan itzuli zen Debara, eta itzuli bezain pronto hasi zen "SOS Arte Eskola" bezalako mezuak irakurtzen. "Penatu nintzen, behingoz Arte Eskolako tailerren batean izena emateko asmoa bainuen". Gabonak aldera, Arte Eskola Bizirik plataformaren berri izan zuen, eta bileretara joaten hasi zen.

Suminak batzen zituen hasieran plataformako kideak. "Hau ezin da onartu", aipatzen zuten lehen bileretan. Pixkanaka, ordea, zer egin zezaketen pentsatzen hasi, eta ohartu ziren testuinguru hau aproposa izan daitekeela arte eskola zer izango den birpentsatzeko. Horretarako, ezinbestean itzultzen dira Oteizarengana. Baina ez nostalgiatik, begirada kritiko batetik baizik. Oteizaren belaunaldiaren mitoa berreskuratu nahi dute,

inozokerian erori gabe. Aipatzen dutenez, belaunaldi haren mitifikazioan diskurtsoek eta sinboloek irabazi dute, eta erabat ahaztu dira teknikak. Teknikarik gabe, ordea, ez litzateke posible egungo arrakastarik. Gainera, Arte Eskolaren historian ezerk irautekotan, teknikak iraun du. Gertatu dena da, bidean galdu dela hasieran teknikari lotuta zegoen proposamena. Horregatik deitu zitzaion une batez Artisautza Eskola, ez zutelako jakin teknikari merezi duten balioa ematen. Zeren teknikak, denbora pasarako ez ezik, diskurtso batzuk mantentzeko ere ezinbestekoak baitira.

ERTZ ASKOTAKO BEGIRADA

Martxoaren 23an, larunbatez, egingo dituzten jardunaldietan eskolaren gaineko ertz askotako begirada plazaratu nahi dute eta horretarako, eskolarekin era bateko edo besteko lotura izan duten hizlariak gonbidatu dituzte. Bi zatitan bereizi dute eguna. Goizean, eskolaren historia errepasatuko dute begirada desberdinen bidez. Aurrena, historia laburbiltzen duen bideo proiektzio bat izango da. Gero, Baroja Colletek eta Gredillak diapositibaz lagundutako aurkezpen bat egingo dute, eta azkenik, Oteiza museoko zuzendari Gregorio Díaz Ereño arteak gizartea eraldatzeko duen gaitasunaz arituko da, Oteizaren begiradatik, beti ere. Bazkaltzeko etenaldiaren ondoren, aurrerantzean Arte Eskolak zertara jo dezakeen pentsatzen laguntzeko hiru proposamen ezagutaraziko dituzte. Koldobika Jauregik, eskolarekin izan duen harremana gogoratzeaz gain, bere museoak nola osatu duen azalduko du. Segidan, Azpeitiko Dinamoa proiektukoek ze oinarri pedagogiko eta helburu dituzten esplikatu dute. Azkenik, Iñaki Uriarte arkitektoak Arte Eskolako eraikin zaharraren paisaia azterketa egingo du, eta Oteizaren eskultura bati -Agina mendiko Aita Donostia- omenaldi bat eskainiko dio amaieran.

"Lehen jardunaldiak" deitu diete hauei, aditzera eman nahian bezala gero etorriko direla bigarren batzuk, eta hirugarren batzuk, eta Arte Eskola zertan bihurtuko den erabakitzeko beharrezko diren gainerako guztiak. Argi daukaten bakarra da itxiera ez dela aukera bat. Hortik aurrera, izan bedi izan behar duena. Arte Eskola ez baita gauza bera izan historian barrena. Hain justu, horregatik da itxiera aukera on bat, jatorrizko espiritura itzuli eta norabide berri bat asmatzeko. Eta horretarako Oteiza erabil badaiteke, zergatik ez erabili? ●



Nafarroako Bertsolari Txapelketa 2019

FINALA

IRUÑEA

Martxoak 23. 17:00etan, Anaitasuna kiroldegian

Ate irekiera: 15:30ean



Eneko Lazkoz Martinez, Xabier Terreros Gartzia, Joanes Illarregi Marzol, Eneko Fernandez Maritxalar
Julio Soto Ezkurdia, Xabat Illarregi Marzol, Julen Zelaieta Iriarte eta Xabi Maia Etxeberria

Gai-jartzailea: Alaitz Rekondo Ferrero | Aurkezlea: Fernando Anbustegi Goñi

Sarrerak salgai Karrikirin (Iruñea), Fantxiken (Elizondo), Okindegian (Lesaka)
Maimurren (Leitza), Xapateron (Etxarri Aranatz), Olgarenean (Lizarra)
eta www.bertsosarrerak.eus atarian



LIBURUA

Ustekabeko istorio hunkigarria



HARTZ ZAHARRAREN SEKRETUA

PEDRO MAÑAS

PAMIELA-KALANDRAKA, 2019
IRUDIAK: ZUZANNA CELEJ
ITZULTZAILEA: MANU LOPEZ GASENI

XABIER ETXANIZ ERLE

Album honek sorpresa asko gordetzen ditu bere barnean. Horixe da irakurri ondoren burura etorri zaidan lehendabiziko ideia. Kanpotik begiratuta, edizioa, izenburua, bilduma, horiek denak ikusita, liburu goxo, haur txikientzat hain erakargarriak diren hartzen istorio horietako bat espero daiteke.

Lehen orritik bertatik, baina, konturatu gara album hau “ezberdina” dela. Testuak baduela poetikotasun ikaragarria, baduela irakurlea harrapatzeko gaitasuna: “Txinako tinta-orban bat kaier zuria- ren gainean bezala. Halaxe erori da Bele Andrearen itzala basoaren gainean”. Eta testuak dioena ilustratzeko dagoen irudia zerutik begiratuta bele baten itzala baso elurtuan... Kolore gutxi, paraje elurtuetako zuri ezberdinen konbinaketa, enbor bakar batzuen marroi argia eta belearen itzal beltza. Akwarelaz eginiko irudi ederra!


Istorioa ere bitxia da, Bele Andreak lurrean dagoen oin-arrastoen bidezidorrari jarraika Hartz Zaharrarengana eramango gaitu, eta animalia bien arteko elkarrizketak istorioaren nondik norakoa bideratzen lagunduko digu, Bele Andreak goiz esnatu dela esaten baitio Hartz Zaharrari, honek, orduan, zerbaitek galarazten diola loa, sekretu batek. Saiatuko dira animalia biak sekretua zein den aurkitzen –“edozer emango nuke neure sekretua aurkitzearen” esaten digu Hartz Zaharrak une batean–, eta azkenean, lore baten lurrarak sekretua argitzen laguntzen du –“Basoa xuxurla ari da. Dakiena ezin du gehiago isilik atxikia. Haren murmurioa lore bat da, giroa sekretu batez lurruntzen duena”–, baina Hartz Handia ez da esnatzen jada.

Hunkigarria da testua, ikusgarriak

irudiak. Liburu poetikoezia agian haur txikiei beren kasa irakur dezaten uzteko, baina ederra ilustrazioak ikusi, gozatu eta Zuzanna Celejen detaileekin, koloreekin jolas dezaten.

Hartz Zaharraren sekretua bere baitan esperoan zuen udaberria zen, haren esperoan pasa du negua, hotza, elurra, paraje bakarti eta isilean zain egon da. Eta lore baten lurrarak udaberria iragartzen duenean, zuhaitzetan, txoritxoetan, baso guztian zehar udaberria datorrela zabaltzen denean Hartz Zaharrak lo hartzen du (betiko): “Hartz zaharra ez da esnatu. Tximeleta-olde batekin ametsetan dago”.

Album zoragarria dugu *Hartz Zaharraren sekretua* hau, ederki itzulita eta balio literario handikoa, haurrentzat izanda ere, balio handia testuan eta baita ere ilustrazio lortuetan. ●



DISKOA

Hegan egiten, aske



ZU AL ZARA?
JOSEBA IRAZOKI ETA LAGUNAK
BIDEHUTS, 2018

JOXI UBEDA GOIKOETXEA

Joseba Irazoki eta Lagunak taldearen disko berriak oihartzun handia sortu du, oso txalotua izaten ari da, eta ez da harritzekoa. Disko biribila baita, lan bikaina.

2014an kaleratu zuten lehen diskoaren jarraipen polita da, aurrerapausoa. Talde soinu trinkoa gauzatu dute, eta kantak aurreko diskoan baino landuago daudela sumatzen da. Melodia, erritmo eta zertzelada dotore ugari entzun daiteke. Halaber, Joseba kantari moduan ere finago aritu da, ahotsa pixka bat aldatu du, onerako.

Joseba Irazoki (ahotsa, gitarra eta kaoss pada), Felix Buff (bateria eta ahotsa), Ibai Gogortza (gitarra) eta Jaime Nieto (baxua) taldekideak musikari handiak dira, eta kanten bidez hegan egiten

dute, aske. Jakin-min, irudimen, ausardia eta kemen handia baitute. Etorria, esperimentatzeko eta probatzeko gogoia, eta oso gustu ona. Diskoan dagoen rock eta psikodelia kutsuko kanta sorta ederra da horren guztiaren ispilua.

Kanten doinuak Irazokik eginak dira, Felix Buffek sortu duen *Gezurrezko bizia* kantarena izan ezik. Hitzak, berriz, Irazokik berak eta Xabier Gantzarainek, Beñardo Goietxek, Dani Irazokik, Mikel Tabernak eta Edu Zelaietak idatzi dituzte.

Kantetan askatasunaren aldeko aldarriak eta izateari eta bizi dugun egoerari buruzko gogoeta gordinak daude: "Libre izateko borrokalariaik, zuek zarete gure gidariaik" (*Lucio eta Durutti*), "Mundua buruan kabitzen zaizu, baina burua ez munduan, hegan egiten du,

zerua bilatzen du" (*Lehiakortasuna*), "Kate haundien bazka pobreen plateran" (*Gose naizelarik*), "Arauk onartu beharra da zigorra, normaltasuna da zigorra, boterearen mezulari bihurtzea da zigorra" (*Zigorra*), "Gizakiak zapalduta mundu osoan, gizaki bihozgabeek zapatuta, salbatuko dituenik nonbaitetik etorriko al da?" (*Salbatzaileak*).

Azkenik, taldeari lana burutzen lagundu dioten parte-hartzea aipagarria da: Aida Torres (ahotsa), Ager Insunza (pedalsteela), Abraham Boba (teklatuak), Ruben Caballero (gitarra), Israel Marco (teklatuak), Johannes Buff (grabazioa, nahasketak eta ekoizpena), Iñigo Irazoki (grabazioa), Jonan Ordorika (masterra), Serafim De Sousa (ilustrazioak) eta Ramon Zabalegi (maketazioa). ●



“Film sendagaitzak”

AINHOA GUTIERREZ DEL POZO

Bilboko kaleetara zinea, antzerkia eta hamaika kultur jarduera eramandu ditu Zinegoak jaialdiak. Horietako bat Asier Altunaren azken laburmetraia izan da: *Han izanik hona naiz*. Joseba Sarrionandiaren liburuaren izenburu bereko ipuin bat oinarri hartuta osatu du zuzendari bergararrak 5 minutuko lana. 12 zuzendarik abiatutako *Gure oroitzapenak* film kolektiboaren piezetako bat da. Filma bere osotasunean Donostiako Zinemaldian estreinatu zen, eta labur bakoitzak bere ibilbidea hartu du ordutik aurrera.

Mamia: mutiko bat auzoko emakumearekin maiteminduta dago eta leihotik berari begira ari zaio gizon batekin larrua jotzen ari dela; emakumeak, umearen begiradaren jakitun, ez du leihorik ixten. Sarrionandiaren ipuinean, hogeitaz geroago umea gizona da, eta bere emaztearekin larrutan ari dela leihoa zabalik uzteko eskatu dio; ilunpean, leihorekin beste aldean, mutikoaren begirada aztoratua igartzen du. Mutiko hori bere txikitako oroitzapena den, edo benetan norbait begira dagoen norberari dagokio interpretatzea. Altunaren laburrean, aitzitik, bi gizonek

dira bigarren aldian xirrika ari direnak; eta neskatxa bat da, leihotik begira dagoena. “Zelataria zelatatu bihurtuko da, eta ehiztaria ehizatua izango da”; baina ez da hori kontua, ordea. Zutabe bat aldatu du istorioan Altunak: bigarren bikotea ez da heterosexuala. Eta honek dena iraultzen du.

Joseba Sarrionandiak bere ipuinen inguruan zioen: “Zergatik tipiak? Bilatzea maite duenari tipitasunak bilaketaren atsegina ugaltzen diolako, edo autorea lan luzerako nagia delako, edo lana hasita bihar etzi huts egitearen beldurrez luzarorako engaiatzen ez delako, edota gauza tipietan handietan bezainbeste sekretu kabitzen delako”. Laburmetraigilea ere ipuin-kontalaritzat har daiteke. Eta gako horien bila jarrita, bergararren bigarren laburrak sekretu tipi bat badu: ipuinaren ziklikotasuna zalantzan jartzen du, behintzat eternalki ziklikoa izateari dagokionez. Mutil gazteak leihotik begira, bikote heterosexuala ikusi du. Nagusiagoa denean hura oroitu, eta *vo-yeurismoak* bultzatzen du larrutan egitean leihoa ez ixtera. Txikitari ikusi zuen emakume *hori* izan nahi du, eta ez berekin oheratzen zen gizona. Gizon bat nahi



du berari plazer ematen, emakume *horrek* ondoan zuena bezalakoa. Eta gainera, neskatxa bat dago haiei begira, lehen bikotearen leiho berean. Eta ez mutiko bat. Pentsa dezakegu lehenengo bikotearen alaba dela edo ez (kontuan izanik egungo alokairuen efimerotasuna, hipoteken estutasuna edo harremanen likidotasuna); baina galdera hurrengoa da: nola jarraituko du istorioak? Eta bide batez: neskatxa horrek zer egingo du gero? Nahiko ote du berak ere larrutan nola egiten duen beste norbaitek ikus dezan? Gurasoen erregimen heterosexualari men egingo dio edo bizilagunak zabaltzen dion leihotik sartuko da? Eta garrantzitsuagoa ziklikotasunari dagokionez: egongo al da beste umerik neskatxa handitzean larrutan nola egiten duen ikusteko (bizilagunen ondorengoa), bikote gay baten umeak izateko aukera murriztuei erreparatuz?

“Ipuin sendagaitzak” deitzen die Sarrionandiak bere lanei, non behin eta berriro irakurri ahala esanahi berri, ezku-tuak suma dakizkioken bere bildumari. “Film sendagaitzak” deituko diegu, beraz, lehen begiradatik haratago hausnartzera bultzatzen gaituzten film labur horiei. ●



Puzzlea

KOKA EZAZU PIEZA BAKOITZA DAGOKION TOKIAN ETA JOSEBA ABITUAK, LINGUISTIKAKO DOKTOREAK, ESANDAKO ESALDI BAT IRAKURRIKO DUZU.



Sudokuak

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.


8			4	5				3
		7		6			1	8
	5					2	4	
	7	2					5	1
		8	3			9	7	
1	9		5	7	4			
		9	8	4		7	3	2
2		5		1				
	3		2	9			8	

		1						3
		7		8		5		
8			2	6				
1		3		5	9			
5				4				8
				2				
4		5				7		
	6				7			2
2		9	6					

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Soja-esnez egindako jakia.
2. Zintzo, prestu.
3. Jaia.
4. Hondatu, galdu.
5. Zatia, puska.



Hizki berak

OSA ITZAZU HITZAK FALTA DIRENAK HIZKI BERAK DIRELA KONTUAN IZANIK, HORI BAI, HURRENKERA EZ DA ZERTAN BERA IZAN.

1				D	I	O	A	K
2	A		S	A	R	D	I	A
3	I	H				I	K	A
4	E	R	R				T	U
5	G	A	I	T				N
6	A	D	E	I	T			

EBAZPENAK

8	2	1	4	5	7	6	9	3
3	4	7	9	6	2	5	1	8
9	5	4	7	9	6	2	5	1
6	3	8	3	2	1	9	7	4
4	7	2	6	8	9	3	5	1
5	6	8	3	2	1	9	7	4
1	9	3	5	7	4	8	2	6
2	7	1	9	8	4	5	7	3
7	3	4	2	2	7	6	1	8

PUZLEA: "ARABAKO MENDIALDEAN, NIK USTE DUT KRISI EKONOMIKO, SOZIAL ETA POLITIKO LARRIA JAZO ZELA, ETA HORREN ONDORIOZ BAT-BATEAN DESAGERTU ZELA EUSKARA."

5XS: 1. TOFU, 2. ONEST, 3. FESTA, 4. USTEL, 5. ATALA.

HIZKI BERAK: 1. USADIOAK, 2. AUSARDIA, 3. IHAUSIKA, 4. ERRAUSTU, 5. GAITASUN, 6. ADEITSUA.

Betona Comín

DUINTASUNA ALDARRI



PRESO POLITIKOAREN ALABA

Argi eta garbi gogoratzen dut gurasoen etxeko terrazan eraiki genuen etxetxoan jolastu bitartean, behin baino gehiagotan sartu zirela grisak etxea miazte-
ra. Horietako batean aitzak leihotik jau-
zi egin zuen. Beldurgarria zen niretzat.
Lau urte bete nituenean Bartzelonako
Model espetxean ospatu nuen urte-
betetzea, aita sententzia betetzen ari
zela. Iltzatuta dut espetxera sartzen nin-
tzenean aitaren lagunak ziren presoek
abesten zidaten kantua. Gure familian
errepresioa bidelagun izan dugu beti-
danik, eta gaxtetxoa nintzela aitaren fal-
ta orekatzen nuen, pentsatuta guztion
eskubideen alde egin zuen borrokagatik
zegoela espetxeratuta.

“Errepresioaren lehen erronka betidanik izan da banaketa”

Frankismoak jazarritako Alfonso Comín kazetari eta politikariaren alaba, eta Toni Comín ERCko diputatu erbesteratuaren arreba da Betona Comín (Bartzelona, Herrialde Katalanak). Mundu duinagoaren aldeko borrokan, Giza Eskubide Zibilen Aldeko Elkarte Katalaneko kidea, ANCKo idazkari nazionala eta Omnium Culturaleko bazkidea da.

TESTUA | **SAIOA BALEZTENA**
ARGAZKIAK | **JORDI BORRÁS**

**2017ko urriaz geroztik
erbeste-
ratuta dago zure anaia
Toni Comín. Zer moduz zaude?**
Tira, borrokalariak gara, ez dugu bes-
terik...

**Noiz eta nola jakin zenuen zure
anaiak erbeste-
ratzeko erabakia
hartu zuela?**

2017ko urriaren 27an, Parlamentu-
ko ekitaldia eta gero, bere etxera joan
ginen, Sergirekin –bikotea– batera
afaltzeko gonbita egin zigulako. Han-
txe azaldu zigun erabakia eta bihara-
munean jarraitu beharreko urratsak.
Lehen geldialdia Frantzia egingo zuen
eta horretarako laguntza eskatu zidan.
Segurtasun arrazoiak tarteko, bera
joango zen autoaren aurretik, ezinbes-
tekoa zelako auto ezberdinetan joan
eta bidea garbi zegoela ziurtatzea.

Nola gogoratzen duzu egun hura?
Gogorra izan zen. Ordu gutxitan anto-
latu behar izan nintzen. Lehen unetik
argi izan nuen ez nintzela bakarrik
joango, eta apirilaren 28ko hautes-
kundeetan Catalunya en Comúko
zerrendaburu izango den eta orain
arte Bartzelonako Udaleko alkateor-

de izan den Jauma Asensiri eskatu
nion nirekin etortzeko. Bera Toniren
oso laguna da, eta inork baino hobeto
ezagutzen zituen testuinguruaren
nondik-norakoak. Gainera aboka-
tua da, eta banekien galderarik egin
beharrik gabe gure beharretara egon-
go zela. Frantziako muga gurutzatu
eta Toni agurtu genuen.

**Errepresioaren gogortasuna bide-
lagun izan duzue familian. Espero
zenuten anaia erbeste-
ratzea?**

Noski, espero genuen. Are gehiago,
familian errepresioa edo erbeste-
aren arteko eztabaida izan genu-
nean, amak Toniri esan zion zalan-
tzarik ez izateko, espetxera joanez
gero aita espetxeratu zuten faxista
berdinen errepresioa biziko zuela.
Beraz, erbeste-
ratzea izan zen lehen
unetik gure aukera bakarra.

**Nola eragin dizue erbeste-
ratzeak
denbora honetan guztian?**

Tira, zorionez gaur egungo erbeste-
ratzea ezin da aspaldikoarekin alde-
ratu: batez ere birtualki kontaktua
mantentzen dugulako, eta horrek la-
guntzen du. Baina noski, erbesteak



berezkoa du nahi ez duzun herrialde batean bizitzera kondenatuta egotea. Hori zailagoa da familian eta inguruan osasun arazoak daudenean: Toni erbeste-teratu zenean gure anaia gaixorik zegoen, eta uztailean zendu zen Belgikan. Azken urtea oso gogorra izan da zentzu horretan. Anaiari egun gutxi gelditzen zitzaizkionean, Belgikan bizi zedin antolatatu ginen. Orain amak arduratzen nau, berarekin zailagoa da halakorik egitea, eta argi dago Toni erbeste-teratuta dagoen bitartean galtzen badugu sekulako drama izango dela. Bizitzan ez dago ezer okerragorik maite duzun jendearengandik urruti egon beharra baino.

Nola bizi duzu Espainiako Auzitegi Goreneko epaiketa?

Kausa bakarra da eta guztioi eragiten digu, beraz absoluziorik badago, guztiak izango dira aske. Gogorra izaten ari da, sekulako astindu emozionala eragiten baitugu epaiketak: lehen egunetan gobernu eta *Jordiak* akusatuen eserlekuetan ikusi nituenean bihotzak buelta eman zidan. Tira, epaiketa telebistatik jarraitu daiteke eta kezkagarria iruditzen zait, oso, mundu zabalaren begietara Fiskaltzak zein akusazioak

eraiki nahi duten irudia. Baina larriena da kezkatuta nagoela, auzia judizialki nondik heldu ez dagoen arren, sententzia idatzita dagoelako.

Europako auzitegiek, bitartean, aske utzi dituzte erbeste-teratutako politikariak. Nola uler daiteke?

Espainiako Auzitegi Gorenak eta justiziak gatazka politiko bat judizializatu dute. Demokrazia errespetatzen ez duten frankistak dira auzi honen atzean daudenak, eta jendea espetxeratuz konpondu nahi dituzte gatazkak. Espainiako batasuna sakratua delako.

Epaiketak giza eskubideen urraketen kontrako mobilizazioak berpiztu ditu han eta hemen. Babestuta sentitu al zarete?

Momentu oro. Espetxeratu eta erbeste-teratuek behin eta berriz eskertu dute jendearen aldetik jasotako babes. Are gehiago, esango nuke indartsu mantentzen dituen arrazoia dela mobilizazioa. Gertatzen dena da interesa dagoela mobilizazioa zalantzan jartzeko, baina mobilizazioak bizirik jarraitzen du eta sententzia ezagutzen denean hamar aldiz biderkatuko da. Ikusi behar dena da,

errepresioaren gorakadaren aurrean jendea gai den mobilizazioak areagotzeko, asteetan luzatuko den greba deialdi baten aurrean jendea batzen den edo ez, adibidez. Espero dugu baietz.

Zer deritzozu alderdi independentisten artean egon diren desberdintasunen inguruan?

Estrategia berri bat ezinbestekoa da. Elkartasuna geroz eta handiagoa izan, orduan eta indartsuagoak izango baikara. Ezin dugu ahaztu errepresioaren lehen erronka betidanik izan dela banaketa, beraz, hein batean, banaketa saiakera horren biktimak gara. Gure helburua bere horretan mantentzen da, eta bide-orria aldatu den arren, ezinbestekoa da elkartasuna berreskuratzea. Ez dago inor soberan eta elkar entzun eta adostasunetara iristeko gai izan behar dugu. Alderdi politiko independentistek hori zor diote herriari.

Nola ikusten duzue etorkizuna?

Buruzagi independentisten kontrako epaia zigorra izango dela uste dut, eta hala bada Estrasburgoko auzitegietan ditugu etorkizuna eta itxaropena. Baina horretarako lau urte beharko dira, gutxienez. ●



Jon Darpon ez zen indio txiki bat, dimisioa eman ondoren konfirmatu denez




Joan den astean Eusko Jaurlaritzako Osa-sun sailburu kargua utzi ondoren, Jon Darpon albiste izan da berriz ere aste honetan. Urtetan zabaldutako zurrumuruak gezurtatu ditu sailburu ohiak: "Jon Darpon ez zen indio txiki bat", adierazi du, labur bezain irmo, Facebooken argitaratu duen mezu batean. Azalpen gehiagoren bila jo du Beranduegik Darponengana: "Aspalditik entzun behar izan dut kanta


hori eta azken asteetan oposizioko parlamentariak Legebiltzarreko pasilloetan ere kantatu didate. Baina argi utzi nahi dut ni ez nintzela indio txiki bat. Hori Jon Brown zen". Nahasmena zergatik gertatu ote den galdetuta, Darponen adierazi du Osakidetza eskandalua "marroi" handi samarra izan dela, "eta denok dakigu marroia ingelesez *brown* dela; horregatik izango zen, ez dakit, ez dakit". ●

SAREAN ARRANTZATUA

Koltxoi disponible



Riddancebus



Opari bereziak umeak entregatzen dituzten emakume etorkinentzat

PPk proposatu ostean seme-alabak entregatzen dituzten emakume etorkinek aukera izatea euren egonaldia luzatzeko, euskal alderdi politikoak eskaintza are erakargarriagoak egin dituzte, jende hori gizarteratzen laguntzeko. EAJk, umea eta giltzurruna entregatzen dituenari Athletic-eko karneta eta Osakidetza kargua oparituko die; PSEk dio umea eta haren aitona entregatzen dituen emakumeak Tour Turistikoa irabaziko duela Donostiako tabernetatik (pintxoak Ernesto

Gascoren kontura); eta Podemos-Ahal Duguk liburu bat (Antonio Gramsciren baten bat, *Il materialismo storico e la filosofia di Benedetto Croce* edo horrelakoren bat) oparituko die gibela eta ezkerreko belarria ematen dituenari. Ezker abertzaleak, bestalde, seme-alaba biki, hiruki, lauki eta boskiak dituzten emakumeei zuzendu zaie, alderdiko fakzio bakoitzak jaso nahi baitu bere parte, umeok bideratzeko gazte-erakunde batera edo bestera. ●



HITZALDIA

FAXISMOA GAUR ETA HEMEN

Hizlaria: **Hedoi Etxarte**

ELKAR-EKIN taldearekin elkarlanean antolatua

📍 **Azpeitia** Sanagustin 🏠 **Martxoak 20** 🕒 **19:00**



DANI BLANCO

MAHAI-INGURUA

ZAINZAKO LANGILEEN BORROKAK

Mahaikideak: **Soraya García** (zaharren egoitzako langilea), **Elena Vasconez** (Kellya) eta **Arantza Arrien** (baserritarra, Etxaldeko Emakumeak).

Moderatzailea: **Onintza Irureta**

MANU ROBLES-ARANGIZ Institutuarekin elkarlanean antolatua

📍 **Bilbo** Kafe Antzokia 🏠 **Martxoak 27** 🕒 **18:30**



DANI BLANCO

MAHAI-INGURUA

HIZKUNTZ ESKUBIDEAK, NORENAK?!

Mahaikideak: **Eneka Alvarez**, **Arkaitz Zarraga**
Moderatzailea: **Lander Arbelaiz**

ARRASATE EUSKALDUN DEZAGUN elkartearekin antolatua

📍 **Arrasate** Kulturete 🏠 **Apirilak 4** 🕒 **19:00**



VICTOR SERRI

HITZALDIA

KATALUNIAKO PROZESUA ETA GARAIPENAREN IKASBIDEAK

Hizlaria: **Jesús Rodríguez** Directako kazetaria

HALA BEDI irratiarekin elkarlanean antolatua

📍 **Gasteiz** Hala Bediren lokala 🏠 **Apirilak 5** 🕒 **18:30**

HERIOTZA. ANTE LA MUERTE

Erakusketa

2019-03-13 // 2019-05-26



San Telmo
Museoa

Zuloaga Plaza, 1
20003 Donostia
T. 943 481 580
www.santelmomuseoa.eus
[@santelmomuseoa](https://www.instagram.com/santelmomuseoa)
[#HeriotzaAnteLaMuerte](https://twitter.com/HeriotzaAnteLaMuerte)